

KARKARA

GUKA



MUTIOZABAL ONTZIOLA

ZUR BERRIAK UR BIZIAN

ANORGA TXIKI, S.L.
KRISTALDEGIA

Oria etorbidea, 4
 LASARTE-ORIA

anorgatxiki@gmail.com
 www.cristaleriaanorgatxiki.com
 943-37 17 33 · 610 45 93 45

- Eraikin komertzialak
- Kristaldura bikoitza
- Segurtasun beirak
- Dutzako manparak eta ispiluak

Pelotari, 5 · ORIO
 943-83 00 34
 autolan13@hotmail.com

AUTO - LAN C. B.




ARDORA
 arraindegia

Eusko Gudari, 4
 © 943-09 28 17 ☎ 623 47 57 52
 ardoraarraindegia@yahoo.com
 ORIO

arkaitz taberna
 orio

- EGUNEKO MENUA
- OGITARTEKOAK
- PINTXOAK
- PLATER KONBINATUAK
- KARTA

Terniza ederrarekin giro ezin hobea

abeslari kalea 6 - 943-83 16 57

azkue
 karrozeriak

Ubegun industrialdea, 7
 AIA-ORIO
 943-83 51 86

azkue
 auto

Olaskoegia z/g
 AIA-ORIO
 943-13 04 38

IGLESIAS SARRAILAGILEAK

iglesiascerrajeros@yahoo.es
 www.iglesiascerrajeros.com
 Erribera kalea, 14 · ORIO
 637 72 33 08

- Ateak irekitzen ditugu
- Sarraila-zilindro aldaketak
- Ateak ixteko malgukien aldaketa
- Komunitateentzako zerbitzua

24orduko zerbitzua

fontana iturgintza
 iturgintza · gasa · berogailuak

Zerbitzu teknikoa
 24 ordu

- Komun eta sukaldeen erreforma
- Galdara eta termo elektrikoek instalazioa
- Ur-jarioak aurkitu eta konpondu
- Bainujontzia kendu eta dutxa jartzea
- Zoru erradiatzailea

Arantzale kalea, 3 · ORIO
 fontana-jul@hotmail.es
 www.fontaneria-fontana.com
 943-53 98 88 · 661 26 28 28

Joseba AROZTEGIA · CARPINTERIA

ATEAK
 ZOKALOAK
 ARMAIRUAK NEURRIRA
 LEIHOAK
 ESKAILERAK
 AROZTEGIA OROKORREAN

687 683 427
 josebaarotza@gmail.com

KAÏOA

kaioa_denda
 www.kaioa.es





KARKARA 451

2023-EKAINA

AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:
AIORA LARRAÑAGA SOLABERRIETA



Aurkibidea

- Korapiloa** Aritz Mutiozabal
Beti berria den ura
- Hitz tantak** Andrea Zipitria
*Belen Palacin: "Aia asko handitu da
hogei urtetan; herritarrak, ordea, ez
dira aldatu"*
- Izpiak eta hizkiak** Jabi Gonzalez
Toston
Herriaren erantzuna
- Gutunak**
- Guka gara!**
- Akuilua hartuta** OAE zuzendaritza
taldea
*Oriotartasuna, profesionaltasuna eta
apaltasuna*
- Puntua jarrita** Unai Manterola
- Moila bazterretik** Garbiñe
Manterola
Ezina
- Herrian galdezka**
*Zer sumatzen duzu faltan uda
garaian herrian?*
- Elkarrizketa** Mireia Galarza
Bastida
*Eider Arruti: "Datozen ikasturteetan
jarraipena eman nahi diogu
proiektuari"*
- Euskara** Amaia Olazabal
Sara Casas: "Beti belarriak prest
izaten saiatzen naiz"
- Guka, parean eta pareko** Andrea
Zipitria
Saregile berrien amarauna
- Oroimenaren kutxa** Iñaki Iturain
*1960ko urteetako gazteriaren
askatasun grina*
- Erreportajea** Aiora Larrañaga
Solaberrieta
Bizi-bizirik dagoen plaza, Aristerraza
- Plazan bazan**
- Ikasleak idazle** Lardizabal eskola

KARKARA



Argitaratzailea

Urolako Komunikazio Taldea
Koop. Elk.
Soreasu 1. 20730
AZPEITIA
943-83 15 27
karkara@karkara.eus
www.karkara.eus

Erredaktoreburua

Aiora Larrañaga
Solaberrieta

Erredaktore taldea

Andrea Zipitria
Aritz Mutiozabal
Onintza Lete Arrieta
Mireia Galarza Bastida
Jabi Gonzalez Toston

Diseinu arduraduna

Ane Azkue

Publizitatea

Mikel Azkue
Leire Martija

**Zenbaki honetako
kolaboratzaileak**
OAE zuzendaritza taldea

Unai Manterola
Garbiñe Manterola
Amaia Olazabal
Iñaki Iturain

Banatzzaileak
Endika Ruiz (Orio)
Manex Dorronsoro (Orio)
Eli Irureta (Aia)

Inprimategia

Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)
Lege Gordailua:
SS-346/90
ISSN: 1132-1105
Tirada: 4.000 ale



Gipuzkoako Foru Aldundia



ORIO



AIAKO
UDALA

Babesleak:





%100 etxean egina
PIZZERIA
KALETA

Arrantzale kalea, 10 943-24 89 46

Gabon
TABERNA

Eusko Gudarien kalea, 7
943-83 06 09



Katu
Horia
Aibaitaritzza klinika

ESTROPALARIZ, 10
20510 ORIO
tel. 943 11 66 99

Larrialdia:
668891129



GARMENDIA

Higiezin Agentzia
Aholkularitza
Aseguruak

943-83 44 66 - 688 75 59 48
Ibai Ondo, 1 - ORIO
info@egarmendia.com

ITZIAR
KIROLAK

Eusko Gudarien kalea, 23
ORIO
943-83 31 03



BODEGA
KATXIÑA

Ortzaika, 20 · ORIO
943-58 01 66 · 606 36 76 93
www.bodegakatxina.com · f i

Kepa Loidi
harategia-urdaitegia

24 orduz harategi banagailua

Pelotari kalea, 1 · Orio · 943-83 25 65
www.kepaloidi.com · info@kepaloidi.com

BODEGON
Sarasua



info@bodegonsarasua.es | www.bodegonsarasua.com | Erreserbak: 943-83 00 05



Kolon Txiki
edaritegia · jatetxea

Herriko Enparantza 4
ORIO
Tel.: 943-83 00 44



JARRI HEMEN
ZURE IRAGARKIA



LASTER
DESATASCOS

688 88 65 36 | 943-75 14 31
desatascos@desatascoslaster.com
ORIO | SORALUZE



INDO

Garraio frigorifikoa
Nazionala eta Nazioartekoa

generoa



garraioak



ibilbideak



kamarak

Ubegun industriagunea, 4
AIA-ORIO
943-89 4024 · FAX-a: 943-13 01 44

Beti berria den ura



ARITZ MUTIOZABAL

Nire belaunaldiko buru argienak ikusi ditut suntsituta / eromenez, gosez akabatzen, histeriaz biluzik, / arrastaka beltzen karrketan barrena ordu txikietan / orratz-zitzada amorragariaren xerka, / aingeru-buru jakitunak behialako lotura zerutiarragatik sutan / gaueko tresneriaren dinamo izartsurantz (...) Artikulu hau abiatzeko hautatu dudan fragmentua Allen Ginsberg poeta estatubatuararen *Ulua* poema ezagunenaren hasierako lerroak baino ez dira. Nahikoak izan ziren, ordea, literatur belaunaldi oso baten ereserki bilakatzeko: XX. mendearen erdian sortutako *Beat Generation* izenekoarena.

Pop kulturaren oihartzun dezente izan dute mugimendu haren ordezkariak: Jack Kerouac, William S. Burroughs, Lawrence Ferlinghetti... eta gizonezkoen supremaziak gerizpean utzi dituen Diane di Palma, Joyce Johnson eta Joan Vollmer bezalako "buru argiak". Beat kulturaren parte dira bebop jazz, drogekin esperimentatzea, sexu askatasuna, naturarekiko sentsibilizazioa eta budismorako joera.

Sasoi hartako musikari eta artista ugari liluratuta geratuko dira mugimendu kontrakultural berriaren proposamenarekin, nahiz eta kosta egin zitzaizen lanak argitaratzea. Ordura arte, beltzen jazz aretoetara joaten zen *hipster* gizon zuria, (egungoek ez bezala) bizar luzerik ez zuena, *beatnik* izatera pasatuko zen, eta, jarraian, *hippie*. Badakit, oso azkarrean laburbildu dudala hamarkada bateko eboluzioa, baina zer gertatzen da bada gurean ere? Mugimenduak etengabe eraberritzen ari direla, eta auskalo zergatik, *Quo*, *Super Pop* edo *Vanity Fair* ahots ahalguztidunek esandakoaren arabera, 1980an jaiotakoa izateagatik, ez dira ados jartzen X Belaunaldikoa ote naizen ala Millenniala.

Sailkatu beharreko artalde jakin bateko buru bat gehiago izateaz gain, zaharra ere banaizela diote. Kuarentoi bat. Eta egia da, eta ez naiz inori kontu hartzen hasiko, "baina izpirituz beti gazte" bezalako memelokeriak erantzuten. Hala ere, gaztelaniaz esaten den moduan: *Que me quiten lo bailao!* Dantza egitea aipatu dudala, gerria astintzera gonbidatu nahiko zintuzketet egun pil-pilean dagoen trap doinu modernoekin, egungo tribu gazteen soinu bandarekin, adibidez, Arrasateko Etxepe laukoteak kaleratu duen Gozategiren *Alboka* abestiaren bertsioaren erritmora.

1995ean kaleratutako Gozategiren estreinako diskoan datorren abesti instrumentala da, orain oinarri erritmikoekin eta autotune ahotsak sartuta Gaztea irratian etengabe entzuten dena. Chill Mafiak Xabier Leteren *Gizon arruntaren koplak* pieza ezagunarekin erabilitako formula errepikatu dute, eta bete-betean jo dute dianan. Izan ere, *Gozategi gaztea da!* Duela urte gutxi batzuk Jon Plazaola aktorea ikusten genuen telebistan *bakailaozale* azpeitiar baten parodia egiten, non hatzetan Gozategi zeukan tatuatuta. Gaur da eguna herriko taldeak belaunaldi guztiak biltzen dituen plaza dantzarako, irrintziak uluak bailiran. Artzeren olerkia bezala: *Iturri zaharretik edaten dut, ur berria edaten, beti berri den ura, betiko iturri zaharretik.* ■■■

**1980KOA IZATEAGATIK,
EZ DIRA ADOS JARTZEN
X BELAUNALDIKOA
OTE NAIZEN EDO
MILLENNIALA**

Belen Palacin: "Aia asko handitu da hogei urtetan; herritarrak, ordea, ez dira aldatu"

TESTUA ETA ARGAZKIA: ANDREA ZIPITRIA

Zarauztarra da izatez Belen Palacin, baina badu Aiarekin lotura polita: duela hogei urte pasatxo iritsi zen herrira lehen aldiz aerobikeko eskolak ematera; orduan gaztetxoekin zein helduekin ibili zen. Maitasunak, ordea, Ameriketako Estatu Batuetara eraman zuen. Urte hauetan guztietan egon da atzerrian, eta orain etxera itzultzeko hautua egin du bi seme-alabekin. Etxera bakarrik ez, Aian zuen lekutxo ere berreskuratu egin du, pilates eta yoga ikastaroak ematen baititu herrian. **Noiz etorri zinen Aiara lehen aldiz?**

Eskolak ematen hasi nintzenean, 1996 urte ingurua izango zen. Orduan, aereobikeko klaseak ematen nizkien herriko gaztetxoei eta erretiratuei. Oso jende jatorrarekin egin nuen topo. Sei-zazpi urtez egon nintzen bertan, baina hura uztea erabaki nuen Estatu Batuetara joateko. Han egon naiz 21 urtez, eta urtero udan etxera etortzen banintzen ere, orain dela urte bat betirako Euskal Herrira itzultzea erabaki nuen.

Eta nolatan bukatu duzu berriz ere Aian?

Oso gustura etortzen nintzen eskolak ematera, Aiako oroitzapen oso onak nituen. Orain dela urtebete inguru Zarauzko kiroldegian eskola ematen ari nintzela, nire familiarteko bat etorri zitzaidan esanaz Aian pilates eta yoga ikastaroak emateko pertsona baten bila zebiltzala. Ez nuen bi aldiz pentsatu. Hurrengo egunean Aiako Kultur Etxera deitu nuen, eta baiezkoa esan zidatenean, a ze poza nirea.

Herria aldatu al da ordutik?

Herritarrak ez, oso jatorrak izaten jarraitzen dute. Polita izan da benetan, hainbeste urte pasa ondoren, jende berarekin egitea topo eta lehengo garaiak gogoratzea. Askoren izenak gogoratzen ditut. Bestalde, herria bere osotasunean hartuta, asko handitu da. Pentsa, gaur dauden bi biribilguneak ez ziren existitu ere egiten. Ikastaroak emateko lekua ere aldatu da. Lehen, gaur egun Haurreskola den eraikinean ematen nituen eskolak, goiko pisuan. Oroitzen naiz

mahaiak eta baztertzen ibiltzen ginela dantzatu ahal izateko. Orain, berriz, Kultur Etxean horretarako egokituta dagoen gela dugu.

Lehen aerobikeko eskolak ematen zenituen, orain, berriz, pilates eta yoga. Zergatik? Jarduera motak aldatu egin al dira ordutik?

Moda kontua da, bai. Gizartea eraldatzen doan bezala, kirol jarduera motak ere egokitu egiten dira. Orain dela hogei urte pasatxo aerobik oso modan zegoen, eta horren inguruko eskolak ematen nituen. Orain, nolabait ospe handiagoa hartu dute pilatesek eta yogak; horiek irakasteko proposamena egin zidaten pasa den urtean Aian, eta horri tira nion. Dena den, esan beharra daukat lehen ikasle izandako asko etorri zaizkidala esanez aerobik eskolak gustura hartuko lituzketela. Hurrengo ikasturtean baloratu beharko da. Zentzu horretan, gehitu nahiko nuke herrialdearen arabera ere aldatu egiten direla jarduerak eta estiloak. Adibidez, ni Estatu Batuetara iritsi nintzenean, orduan bertan pil-pilean zegoen yoga, Euskal Herrian ez bezala. Badirudi handik hona etorri dela moda.

Aian hainbeste urte pasatuta, anekdotaren bat izango duzu, ezta?

Bai. Adibidez, lehen haur eta gaztetxoekin bi talde nituen; 4-8 urte bitartekoak batera ibiltzen ziren, eta 8 urtetik gorakoak, beste batean. Adin tarte zabala egoten zen eskoletan askotan, eta hori oso aberatsa zen Aia bezalako herri txiki batentzako. Harreman politak sortu ziren, eta txikienak handiei imitatzen saiatzen ziren, gogoz jarduten zuten; asko gustatzen zitzaidan hori ikustea.

Dantzaria zara zu. Nola ikusten duzu dantzaren egoera hemen? Posible al da lanbide horretatik bizitzea?

Ezin da bizi dantzari profesionala izatetik; ez hemen, ez inon. Denbora librean egiteko zerbait bezala ikusten da dantza, eta ez ogibide gisa. Hori da gaur egungo arazoa, nire ustez. Estatu Batuetan ere antzeko zerbait gertatzen da. Gutxi batzuek bizi dira, oso maila altua dutenak, eta zortea dutenak. ■■■



Herriaren erantzuna

ARGAZKIA: JABI GONZALEZ TOSTON

TESTUA: AIORA LARRAÑAGA SOLABERRIETA

Maiatzaren 16an hilketa matxista bat gertatu zen herrian. Egun argiz, gizon batek bere bikotekide ohia tiroz hil eta bere buruaz beste egin zuen.

Oriotarrak lur jota utzi ditu gertatutakoak, eta maiatzaren 17an, Orioko mugimendu feministak deituta, elkarretaratze jendetsua egin zen Orioko Herriko Plazan, hilketa matxista salatzeke eta bi

familiari babesa adierazteko. "Gertakari honetan Lourdes da biktima nagusia eta haren familiari gure babesa adierazi nahi diogu; horrez gain, badaude zeharkako biktima gehiago ere, bi familiak, lekukoak eta herritarrak", azaldu dute mugimendu feministatik.

Ezbeharraren ondoren erreparazio fasean murgilduta dago herria, eta Sortzen aholkularitzaren eskutik, herriko hezitzaileei eta 16 urtetik gorako herritarrei zuzendutako arreta psikologikoa eskaintzen ari da udala. ■



BADATOR UDA!

Eskuratu GUKA produktuak



GUKA

Informazio guztia: www.karkara.eus/denda/

PUBLIZITATEA



Imanol Illarramendi
Aia (Gipuzkoa)

KORTABERRI
arotz lanak

kortaberri.arotza@hotmail.com

665 70 33 47



kutixi
kafetegia

Aritzaga 9 • ORIO • 943-13 15 17



Lizaso
Dekorazioa

Eusko Gudari, 48 • ORIO • 943-83 07 84
itzilizaso@gmail.com



MARBIDO

ILEAPAINDEGIA
Eusko Gudari, 8 behe • ORIO
943-13 47 29

MENDIZABAL
ARROZTEGIA

Neurriko armairuak eta egurlanak

Altxerri bidea, Beti-Alai etxea • AIA-ORIO
943-83 11 75 • 645 70 84 91
mendi@arotzgi.net



OINARRI **PODOLOGIA ZENTROA**

Arrantzale kalea, 63 behe
ORIO
943-57 53 61
oinarri@podologia-oinarri.com
www.podologia-oinarri.com



Oreka
fisioterapia

Eusko Gudari, 54 • 943-13 35 37

Ekografia muskulo-eskeletikoa
Eskuzko terapia • Talka-uhinak
Masaje terapeutikoa • Osteopatia



Orioko
Herri
Ikastola
ORIO GARA

Abeslari kalea, 8
943-83 47 04
Fax-a: 943-13 09 38
orio@ikastola.eus
www.oriokoikastola.eus



PAKO IMAZ

pertsianak

PERTSIANAK
aluminioa
motorrak
automatismoak
konponketak

600 70 52 27 • 943-13 29 01
pakoimaz@hotmail.com • ORIO



Hemengo haragia.
Etxeko produktuak: tripaki, odolki,
txekorra, txorizo, kroketak...

HARATEGIA
PATXI
OLIDEN
URDAITEGIA

Eusko Gudari, 25 • 943-83 00 10



IBER glass
Automobilaren kristaleria
Errotulazioa
Hitzordua 689 34 11 01
edo LAIARANen



glass
colorada

LAIARAN

Estropalari, 12

LAIARAN
Lanerako arropak
5XL arteko tailak
PERTSONALIZAZIOA

Aldaketak gutunen atalean

AIORA LARRAÑAGA SOLABERRIETA

KARKARAKO ERREDAKTOREBURUA

Gutunen ataleko tartetxo hau erabili nahi nuke, aurrerantzean atal honetan izango diren bi aldaketa jakinarazteko. Orain arte, nahiz eta Karkarak egilea nor den jakin, ezizenez sinatutako gutunak argitaratu izan dira aldizkarian. Hala, asko izan dira *herritar bat* bezala sinatuta joan diren gutunak. Hemendik aurrera, ordea, gardentasun irizpideak kontuan hartuta, argitaratzen ditugun gutun guztiak izen-abizenez edo elkartearen izenarekin sinatuta behar dutela erabaki dugu Karkarako lantaldean.

Bestetik, jaiotako haurren atala ere desagertu egin da. Izan ere, haur jaioberriak erregistratzeko modua aldatu egin da; aurrerantzean Donostiatik bideratuko dute gaia, sistema informatiko bidez, eta Orioko Bake Epaitegiak ez du eskumenik izango horretan. Beraz, guk ere ezingo dugu informazioa jaso eta zabaldu.

GUTUN GUZTIAK IZEN-ABIZENEZ EDO ELKARTEAREN IZENEZ SINATUTA ARGITARATU BEHAR DIRA



Familiako bost belaunaldi. JAVIER LUCAS

Eskerrik asko 'tataramona'

LEIRE ARAMENDI

AIA

85 urterekin *tataramona* egin zitzaigun amona Juanita azaroaren 17an, Paularen etorrerarekin. Beti izan du ilusio handia herenamona izateko. Bizitzako titulu politenetakoa dela dio berak. Lau alaba, bederatzi biloba eta 14. birbiloba bidean dela, ama, amona, birramona eta herenamona hoberik ez da munduan.

Duela 26 urte, lau belaunaldi biltzen zituen familia gazteenetarikoa izan ginen Keparen jaiotzarekin; gaur egun bost belaunaldi gara, Keparen alaba Paularen jaiotzarekin.

Asko maite zaitugu amona, eta eskerrik asko.

Zaharren Babeslekuko irteera

ZAHARREN BABESLEKUKO ZUZENDARITZA

ORIO

Orioko Zaharren Babeslekukook irailean irteera

antolatu dugu Malagara (Andaluzia, Espainia). Bederatzi eguneko bidaia izango da, irailaren 11tik 19ra. Besteak beste, honako herriak bisitatuko ditugu: Almagro, Malaga, Ronda, Marbella eta Puerto Banus. Irteeraren inguruko informazio zehatzagoa nahi dutenek edo izena eman nahi dutenek 626 47 14 23 telefonora deitu dezakete.

Bestetik, ekainaren 14an irteera egingo dugu Laguardiara (Araba). Bertan parte hartu nahi dutenek sarrerak salgai izango dituzte ekainaren 6an, 17:00etatik 18:30era, 40 euroren truke. ■■■

ZORION AGURRA



MAITANE ATXEGA

50 urte ezkunduta

Tere eta Luis eta Pilar eta Eusebio (†) zorionak zuen 50. urtemugan, etxekoan partez.

HILDAKOAK

- **Itziar Etxeberria Urkizu.** Orion, apirilaren 21ean. 90 urte.
- **Bixente Genova Mendizabal.** Orion, apirilaren 30ean. 90 urte.
- **Lourdes Del Hoyo Garcia.** Orion, maiatzaren 16an. 50 urte.
- **Alberto Casado Sanchez.** Orion, maiatzaren 16an. 50 urte.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). KARKARAK eskubidea du gutuna laburtzeko. KARKARAK ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina beti, guk egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta pertsona horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, KARKARAK esan egingo dio.

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARARA bidali daitezke posta elektronikoz honako helbidera: karkara@karkara.eus edo erredakziora eskura ekarri -Orioko edo Alaiok Kultur Etxean- edo postaz bidali. Kultur etxea, 20810 Orio

"Geurea", "etxekoa", babesean

Testua: **Erredakzioa**. Argazkiak: **Utzitakoak**.

Bertakoa eta anitza, eragileen eta herritarren bozgorailu, eta euskararen aterpe. Horrela defini daiteke euskarazko toki komunikabide bat. Horrela defini daiteke KARKARA. Orioko eta Aiako gertaera garrantzitsuen berri eman du sortu zenetik, eta hain garrantzitsutzat jo ohi ez ditugun beste mila eta bat istorio handi eta txiki ere kontatu ditu orrialde fisiko zein birtualetan. Gertaerak eta istorioak daude alde batean; bestaldean, bazkideak, irakurleak, erabiltzaileak, eragileak. Toki hedabide batek behar-beharrezkoak ditu horiek guztiak, eta herritarrek eta eragileek ere funtsezkoak dituzte KARKARA bezalako herri komunikabideak beren lana, iritziak zein salaketak plazaratzeko, nahiz informatuta egoteko.

Tokiko komunikabideen garrantzi hori argi dute, esaterako, Nere Manterola eta Xabier Sukia oriotarrek. Irakaslea aurrena, kazetaria eta bertsolaria bigarrena, biek sentitzen dute gertuko KARKARA. "Komunikabide handietatik aparte, tokikoak edo txikiak herriko puntu hori eskaintzen du, eta batez ere eguneroko informazio oso-oso eguneratua eskaintzen du KARKARAK. Oso lan txukuna egiten dela iruditzen zait", azpimarratu du KARKARAKo bazkide ere baden Manterolak; "sare sozialetatik eta webgunetik jarraitzen dut, eta uste dut etengabeko informazioa eta geurea eskaintzen duela, etxekoa". Manterolak aitortu du

joera duela "hemengo gauzak hemengoek kontatuta" jakitekoa.

Informazio erreferentziala, euskaraz

"Niretzat KARKARA da Orio", azaldu du, berriz, Sukiak. "KARKARA da informazio hurbila, gertukoa, erreferentziala eta gertuko pertsona, talde eta elkarteen informazioa jasotzeko bide bat", gaineratu du. "Informazio aldetik iturri hurbila izateaz gain, hizkuntza aldetik ere hurbiltasuna transmititzen didan hedabidea da, Orioko euskarak bere bustidurak badituelako, eta izenetik abiatuta, hasieratik atxikimendu bat lortu zuelako *Karkara* deitzeagatik eta idazkera aldetik ere hasieratik lan handi-handia egin zelako herritik ahalik gertuen egoteko". Euskaraz "informazio erreferentziala" irakurtzeko "tresna inportantea" deritzo Sukiak KARKARari.

Euskaraz izatearen garrantzia nabarmendu du Manterolak ere: "Bizi ditugun garaiotan, behar-beharrezkoa da herriko komunikabidea euskaraz izatea eta sare sozialetan-eta presentzia edukitzea gure hizkuntzak".

Urteetako lanaren poderioz lortu du KARKARAK herritarren egunerokoan erreferente izatea, *etxekoa*; urratsez urrats, talde lanean eta batzearen indarrean sinetsiz. Horregatik, etorkizuna GUKA proiektuaren aterkipean ikusten du KARKARAK, funtsari eusteko: bertakoa eta anitza izatea, eragileen eta herritarren bozgorailu, eta euskararen aterpe. ■

GUKA GARA!



Xabier Sukia.

**"HIZKUNTZA ALDETIK
ERE HURBILTASUNA
TRANSMITITZEN DIDAN
HEDABIDEA DA
KARKARA"**



Nere Manterola.

**"USTE DUT KARKARAK
ETENGABEKO
INFORMAZIOA ETA
GEUREA ESKAINTZEN
DUELA, ETXEKOA"**



Oriotartasuna, profesionaltasuna

Askotan esaten dute gure arraunlariek eta entrenatzaileek negua luzea eta gogorra izaten dela. Dena ez da udan gertatzen. Udazkenean, neguan eta udaberrian hain mediatikoak ez diren lehiaketa asko jokatzeko dira aulki mugikorren eta finkoan. Txapelketan izan gara kategorian desberdinetako 200 arraunlarirekin; aulki mugikorreko eta finkoko Gipuzkoako, Euskal Herriko eta Espainiako txapelketetan. Emaitzak azpimarratzekoak; zortzikoan Euskal Herrian jokaturako txapelketa ofizial guztiak Oriok irabazi ditu. Finkoan, bateletan eta trainerilletan izandako parte hartzea sinbolikoa eta laburra izan da. Bateletan kadeteek Gipuzkoako zilarra eta seniorrek trainerilletan

Gipuzkoako eta Euskal Herriko zilarrak.

Iosu Esnaola presidentearen arabera, "historikoki aulki mugikorraren aldeko apustua handia izan da Orio Arraunketa Elkartearen aldetik, eta erronka hori sendotu eta indartzeko pausoak ematen ari gara. Erabaki oso kontzientea izan da aurten gazteen prestaketa aulki mugikorrera bideratzea. Arraun eskolak indar handiak jarri ditu horretan. Horrek etorkizunera begira beste fruitu batzuk emango ditu, eta Oriok aulki mugikorrarekin duen lotura berretsiko du harrobiaren lanketa berezia eginez".

Arraun eskolan umeak eta gazteak arraunaren baloreetan hezten ari dira; oriotartasuna, profesionaltasuna eta apaltasuna. Hiru zutabe horietan oinarrituta lanean ari

den giza talde aditua da arraun eskolako; Oriorekiko lotura, konpromisoa, sakrifizioa, errespetua, euskara eta solidaritatea.

Aurtengo nazioarteko estropadak bikainak izan dira Orion. Neguko lanaren erakusgarri, neskek eta mutilek txapela irabaztea lortu dute. Eta Patxi Sarasua bezalako handi bati ere txapela jantzi zaio herriaren aurrean.

Oriaren traineru jaitsieran neskek lehen postua. Aurre denboraldian bi jaitsiera irabazita erakutsi dute neguan etxeko lanak ongi egin dituztela. Mutilak Oriaren aurrea izateko borroka horretan oso gertu ibili ziren. Arraunlarien aldetik kantitate eta kalitate erakustaldia izan da jaitsierako azken edizioa. Traineru denboraldiaren atarian, prest

HAUXE BAI JENEROA!



eta apaltasuna

dira Orioren hiru ontziak. Patxi Frances entrenatzailearen hitzetan, "taldea mentalki konbentziturata dago denboraldi on bat egin dezakeela, oso talde profesionala da, entrenamenduetan egunero erakusten dute hori, negua luzea da eta kontzentrazioa garrantzitsua. Aurre denboraldiko estropadetan ontzia maila onean egon dela uste dut, baina badakigu ezin garela erlaxatu, urtez urte ontzien maila orokorra gorantza datorrelako. Iazko denboraldiko markak egin nahi baditugu, dena ematera behartuta gaude, gure arerioei errespetua galdu gabe".

Jon Salsamendi eta Anjel Larrañaga entrenatzaileek diotenez, "udazkeneko entrenamenduak mutil guztiak nahastuta hasi genituen. Egia

da gero uda gainera datorrenean, TKE eta KAE ligetan arraun egin behar duten arraunlari taldeak definitu egin behar direla, eta Oriaren jaitsieratik aurrera bi taldeek izaera independenteago batekin entrenatu dugu, bakoitzak bere bidea egin behar baitu. Bigarren txaluparen helburuak formakuntza eta heziketa dira, gure mutil gazteek eliteko arraunlariak izateko zubi lana egiten dute. Eliteko arraunlariak eta pertsonak izateko egiten dugu lan, beti harrobia oinarritzat hartuta. Uda begira ahalik eta maila handiena ematea eta arraunlarien heziketa dira helburu nagusiak".

Ikusitakoak ikusita eta datorrena datorrela, uda honetan ere #nioriorekin. Eta zu? ■■■

PUNTUA JARRITA

Bertsolaria: Unai Manterola.
Doinua: Gazteak Lizargatez.

1 Organo emaleek bizitzak salbatu.

Denok behar genuke horretara batu, besteena luzatuz bizitza bukatu, norberetik emanez besteak askatu.


2
Inork ez du nahi bere herio garratza, begiak itxi eta galtzea arnasa. Baina iristen bada hain aldarte latza, nik besteei lagunduz nahi nuke pasa.

3
Nik oso gaztetandik garbi dut ikusi: bizi-testamentua eginik lehenbizi; heriotza batetik bederatzi bizi, ezin aukera horri aterikan itxi.

Hurrengo bertsolaria:
Mikel Portularrume Paorra
arraunlari ohiari.

Puntua:

Lehorretik estropa lasai ikusten da. ■■■



Ezina



GARBIÑE MANTEROLA

Orri zuriaren sindromea: ideiarik gabe edo blokeatuta sentitzea da norberak sortutako testu batekin bete behar den dokumentu zuri baten aurrean.

Batzuetan sentitu dut halakorik moila bazter honetan idazterakoan. Epea amaitzear dudanean, zezenaren adarrak ikustean, etortzen zait inspirazioa gehienetan. Estudiante eternoaren sindrometik ere badu zerbait azken sprintarenak.

Astebete daramat buruari bueltaka, ileari hazkaka orri zuriaren aurrean. Bihar bidaliko dute Karkara inprentara eta oraindik ez dut lortu hitz bat bera ere idaztea. Eta jabetu naiz hau ez dela betikoa. Azken egunetako gertaeren aurrean parean dudan orria beltza da. Beltzetan beltzena. Eta ez dut tinta zuririk barruan dudana mintzatzeko. Inork inoiz ez zidan esan muturren aurrean orri beltza tokatuko zitzaidanik.

Lehenengo aldia da zerbait idatzi behar, zerbait idatzi nahi eta ezina dudala barnean.

Zer pentsatu? Zer esan? Zer egin?

Galderak nire, zuen buruan bueltaka. Behin eta berriz, mantra baten gisan.

Hiru galdera motz, simple, parean dena ama, aitona edo semea izan.

Hiru galdera motz, simple, parean duguna kuadrillakoa, ezagun soila edo ezezaguna izan.

Hiru galdera motz, simple, parean zena kazetaria izan.

Eta ezin asmatuaren sentsazioa. Beti.

Nork du boligrafo zuri bat dugun minaz idazteko? Nork du belztasun honetan argitasun apur bat gertatu dena ulertzeko? ■

**ETA EZ DUT TINTA
ZURIRIK BARRUAN
DUDANAZ
MINTZATZEKO**



bertako
igogailuak | ascensores

Benetako orotariko zerbitzua
100€-tik/hileko

Igogailuen mantentze-lanen eskaintza zorrotzena
+2.000 bezerok gugan dute konfiantza
943 903 450 bertako.eus

Zer sumatzen duzu faltan uda garaian herrian?



ANE SAIZAR

"Gu gustura gaude herriak eskaintzen duen eskaintzarekin uda garaian. Egunero hondartzara joateko ohitura dugu, beraz, izaten dugu plana. Eskatzen duguna da eguraldi ona egitea. Uda garairako antolatzen diren ekintzak ere egokiak izaten dira. Aire zabaleko zinema, esaterako, asko gustatzen zaigu. Gehiagotan antolatuko balute, primerakoa litzateke. Udan ekitaldi mordoa egoten dira, eta oso gustura gaude, beharrak asetuta ditugu, baina familiarian komentatu izan dugu negurako nahi genukeela haurrentzako parke edo espazio estali bat izatea herrian. Ikastolaren ingurua guztiz irekia da, eta beharko litzateke aterpe handi bat herrigunean bertan, Zaragueta Eskolan dagoen bezala".



ISABEL LOPEZ

"Nik uste dut uda garairako haur eta nerabeentzat eskaintza zabalagoa eskaini beharko lukeela herriak. Badakit Txurrumuskik antolatzen dituen udaleku irekiak eta Gazte Abenturak badaudela, baita kirol ikastaroak ere. Hala ere, arratsaldeetarako bestelako jarduerak antolatzea ere egokia litzatekeela iruditzen zait; kale animazioa, esaterako. Gazteei bideratutako jarduera gehiago izatea ere egokia litzateke, beste herrietara joan behar izaten dute-eta. Uda sasoiari niri lasai egotea gustatzen zait; gutxi joaten naiz hondartzara, semea txikia zenean hondartzara joateaz nazkatu egin nintzelako. Nahiago dut ibiltzera atera eta inguruak eskaintzen duen lasaitasuna aprobetxatu, horretarako toki paregabean bizi gara eta".



PEDRO SALSAMENDI

"Nik neuk ez dut ezer faltan sumatzen uda partean herrian; gustura bizi naiz. Beti esaten dut hobeto egotea kalterako izango litzatekeela. Udako eskaintzari dagokionez, asko gustatzen zaizkit plazan antolatzen dituzten jaialdi, ekitaldi eta festak. Giro ederra jartzen dute eta uste dut lehen ez zela horrelako *ambienterik* antzematen herrian. Ez zen orain beste jende biltzen antolatzen ziren ekitaldietan, eta nabaritzen da jendea gustura eta pozik bizi dela Orion. Nire ingurukoek ere sentipen bera dute, gure artean komentatzen dugu, gainera. Nik 53 urtez harategian goizetik gauera lan egin izan nuen, kartzelan bezala, eta niretzat oso atsegina da orain hondartza aldera ibiltzera joatea. Egunero egiten dut buelta".



"Datozen ikasturteetan jarraipena eman nahi diogu proiektuari"

EIDER ARRUTI 'MUTIOZABAL TXO'-REN ONTZIOLA HEZKUNTZA PROIEKTUKO KOORDINATZAILEA

Mutiozabal ontziolak garrantzia ikaragarria izan du Orioko historian. Azken urteetan, ordea, gainbeheran zegoen ontziola. Orain, berriro, bizia eman diete errioz bestaldeko leku bereziari, eta ez edonork, herriko umek baizik.

Testua: **Mireia Galarza Bastida**. Argazkiak: **Aiora Larrañaga Solaberrieta**.

Maiatzaren hasieran eta dozenaka herritarren begiradapean izan zen herriko ikasleek egindako alaren botadura Mutiozabal ontzian, eta hitzordua aprobetxatu

zuten bertaratu zirenek ontziolak bizi-bizirik iraun zezan lan egin zuen familiari aitortza egiteko: Carrera familiari, *Txankatarrei*, hain zuzen. Ez zebilen urruti egun hartan Eider Arruti (Orio, 1995). Gizarte antropologoa da ikasketaz, eta Albaola Itsas Kultur Faktoriako langilea orain dela ia urtebetetik. Hain zuzen, egun *Mutiozabal*

Txoren ontziola hezkuntza proiektuko koordinatzailea da bera.

Zein helbururekin jarri zenuten martxan Mutiozabal Txoren ontziola proiektua?

Abiapuntua 2019an koka dezakegu. Urte horretan, Orioko Udalak Mutiozabal ontziola erosi zuen, eta zaharberritu egin zuen gero. Ondoren hasi ziren pentsatzen zer egin zitekeen halako balio historikoa daukan eraikin batean, eta ondorioztatu zuten museo arrunt bat izan beharrean, barruan zerbait egingo zuten espazio bat behar zuela izan ontziolak. Helburu hori lortzeko herriko haurrekin hezkuntza proiektu bat martxan jartzea erabaki zen, Orioko ondarea zabaldu eta belaunaldi gazteenek herria gehiago eta hobeto ezagutu zezaten. Izan ere, hondartzari begira bizi gara, baina erriolari bizkarra emanez, eta askok deskonexioa sentitzen dute herriaren historiarekin. 2022an egin genituen lehen proba pilotuak hainbat ikaslerekin, eta artisau lanak egiteko haurrek dituzten gaitasunak eta trebetasunak ikusi ondoren, ikasturte osoko proiektu bihurtu zen.

Azaldu duzuenek, proiektu honek hezkuntza eta didaktika aldetik "sekulako potentziala" du. Zergatik?

Nik beti esan izan dut hezkuntza ez formalak aukera asko ematen dituela proiektu berriak landu eta beste dimentsio batean lan egiteko. Egunerokotasunetik ateratzen zara, eta horrek gauza asko egiteko aukera ematen du. Izan ere, hemen ere lantzen dira matematika, historia eta fisika, baina beste modu batera. Pantailetara bideratuta dagoen gizarte bat gara, eta umeei 24 ordu dituzte egunero horien aurrean egoteko, ez, ordea, artisau lanak egiteko. Gainera, guk ikusi dugu umek gai direla erremintak hartu eta lan egiteko, aurretik pautu egokiak emanda. Izan ere, badago gehiegizko babes moduko bat umeei; eskuetan hartzen dutenak beldurtu egiten gaitu. Orain justu-justu erabiltzen dituzte punta borobila duten guraizeak; nirea, berriz, puntzoiaren belaunaldia da, eta gure gurasoek beraiek egiten zituzten eskuz gauza asko. Ni naiz aurrena hasieran zalantzak zituen umeei erremintak emateko, baina beraiek dira lehenengoak kontuz ibiltzen dakitenak.

Guztira zenbat umek parte hartu dute egitasmoan?

Orioko bi ikastetxeetako LH5-6 eta DBH1-2 kurtsoetako gaztetxoek parte hartu dute, eta Aginagako herri ikastetxetik ere 10 lagun izan dira proiektuan. Guk aurreikusi genuen ontzia egiteko gutxieneko adina zein zen, indar jakin bat behar

delako eta psikomotrizitate aldetik ondo moldatu zitezene, baina hortik aurre, ikastetxeen esku utzi genuen. Egia esateko, denak moldatu dira ondo, baina Aginagako umeei nabaritzen zitzairen ohituago zeudela erremintak erabiltzera. Orion gaur egun geratzen diren ala gutxi horietako bat duen familiako ume bat etorri zitzaigun, eta berari ere nabaritzen zitzaion besteek baino gehiago zekiela. Erremintak ibiltzen zekiten batzuk ere bazeuden, eta galdetzen ziguten ea posible izango litzatekeen ontzia amaitutakoan beraiek beste zerbait egitea ontzian, kar-kar.

Albaolako zenbat kide zabiltzate proiektu honetan lanean?

Egia esateko, hasieratik hona hainbat lankide igaro dira proiektutik. Gaur egun hiru pertsona gaude proiektuan, eta nik uste formula egokia bilatu dugula. Jende oso gaztea gaude, gogo askorekin, eta nabari da hori egunerokotasunean. Nitaz gain, Oibar Olano Albaolako arotz eskolako kidea ibili da, umeei konexio berezia sortzea lortu duena. Inigo Luzuriaga da hirugarren kidea, bera Donibaneko Donibane lanbide heziketako ikaslea izandakoa. Irakasle nagusi moduan, berriz, Saul Hoffmann italiarra ibili da.

Zergatik egin duzue ala bat?

Bi arrazoi daude. Lehenengoa da eraikitzeko errazena direlako, alegia, beste ontzi batzuekin alderatuta zailtasun maila txikiagoa dutelako, eta bestetik, Orieta eta Oriorekin oso lotuta daudelako. Badaude alaren forma antzekoa duten ontziak, txanelak edo gabarrak, esaterako, baina guk ala bat egin dugu historikoki Orieta bakarrik erabiltzen ziren ontziak izan direlako. Hori, balio erantsi bat izan da guretzat. Sakonera txikia dute alek, eta oso zabalak dira. Lanerako erabiltzen ziren gehienbat. Batzuek arrantzarako erabiltzen zuten, eta beste batzuek garraiorako bakarrik. Pentsa, ni ikusita nago ala baten barruan zaldi bat, errioren alde batetik bestera eramateko. Hondarra ontzian sartu eta errioren gora baserrietara eramateko ere erabiltzen ziren alak. **Zein onura ditu umeentzat horrelako proiektu batek?** Alde batetik, ikasleen kontzentrazioa lantzen da. Umeak dira, eta ohikoena da energia asko edukitzea, baina ontzian sartu ondoren estimuluen abiadura jaisten zutenez, oso lasai igarotzen zuten ontziolako tartea. Bestetik, ikusten zuten beraien lanak zerbaiterako balio zuela, pieza txikiena ere ontzian baliotsua izan daitekeelako, eta hasieran sinestezina iruditzen bazitzairen ere, ondoren beteta sentitzen zirela



Goian, herriko eskoletako haurrak Mutiozabalen egin duten alan arraunean, Eider Arruti patroli dutela. Behean, Carrera familiari udalak egindako omenaldia.

nabari genezakeen. Horretaz gain, tresna asko ere lehen aldiz ikusi eta probatu dituzte, baita zuhaitz motak ezagutu ere. Izan ere, konturatu gara zuhaitz asko ez zituztela ezagutzen umeez. Badago hor pasadizo bitxi bat. Gogoratzen naiz umeei galdetzen geniela ea nondik uste zuten zetorrela erabiltzen genuen egurra, eta behin jaso genuen erantzuna izan zen: "Ikeatik!". Ondoren hasten ginen sakontzen ea inguruko basoak zeintzuk ziren, eta halako batean jasotzen genuen erantzuna: "Pagoetatik!". Polita izan da prozesu guztia umeez egitea, guk ere asko ikasi dugu.

Zer suposatu du Albaolarentzat horrelako proiektu bat gauzatu ahal izateak?

Albaolak antolatzen ditu umeentzako tailerrak, ez ordea tamaina honetakoak, eta horretaz gain, gehiago funtzionatzen du museo moduan. Oso proiektu polita da, baina barne antolakuntza handia eskatzen du, 25 ume inguru eduki eta hori guztia nola dinamizatu erabakitzea zaila baita. Guk, lan karga handia izanda ere, oso gustura gaude.

Eta umeez, zer zioten beraiek?

Lehen aipatu bezala, hasieran ez zuten oso ondo ulertzen zer zen egingo zutena. Harriduraz begiratzen ziguten ala beraiek egingo zutela esatean, eta oraindik eta gehiago pozten ziren ontzia uretara bota eta beraiek bertan arraun egingo zutela esaten genienean. Botadura egunean ere larritu egin zen bat edo beste ontziak flotatuko zuen edo ez pentsatzen zuenean. Dena dela, lanak ondo egin zituzten galdetzean, baietz erantzuten zuten, eta beldurra desagertzen zitzairen. Nik uste berezia izan dela beraientzat horrelako proiektu batean parte hartzea, hori nabaritzen genuen guk.

Herriaren aldetik jaso al duzue iritzirik? Nola sumatu duzue hartu dutela oriotarrek ekimena?

Uste baino jende gehiago gerturatu da, baina aurretik ontziolarekin harremana zutenak izan dira gehienak.

Auzokideak jaitxi dira eta galdetu digute zertan ibili garen, eta esku

bat ere eskaini digute. Normala da, ikusi dute ontziola urte luzez erortzen ari zela, eta ilusioa sentitu dute azkenean bertan zerbait egiten ari direla ikusita. Ontziola alboan bazen autoak konpontzeko lantegi bat, eta bertatik erretiratu zen langilea ere etortzen zaigu askotan bisitak egitera. Dena dela, nire susmoa da herri mailan oraindik ez dela proiektua erabat sustraitu, azken finean, zubia badelako Orion muga fisiko ikusezin bat, eta asko ez dira gerturatzen arrazoi horrengatik.

Nolakoa zen egun bat ontzian?

Azkue kontserbak egiten zituzten eraikinean gela bat dugu, eta bertan azalpen historiko batzuk ematen dizkiegu umeei. Alferrik da, ordea, nik ordubeteke alamera ematea umeei, baldin eta gero ez badute ezer ulertu behar. Horrengatik, saiatzen gara atentzioa piztuko dieten gauzak kontatzen. Adibidez, esaten badiet Oriotik atera direla munduko itsasontzi garrantzitsu asko edo Mutiozabal familiak egindako planoak erabiltzen direla gaur egun ere erreferentzia nabarmen bezala ontziak egiterako garaian, horrek atentzioa pizten die umeei. Hori esan eta



Ikasleek Mutiozabalen egindako alaren botadura ekitaldia.

"ONTZIOLAN ERE LANTZEN DIRA MATEMATIKA, HISTORIA ETA FISIKA, BAINA BESTE MODU BATERA"

"ORIAREKIN ETA ORIOREKIN LOTURA ZUZENA DUELAKO ERABAKI DUGU ALA BAT ERAIKITZEA"

"AURTENGO URRIAN MUTIOZABAL EGUNA OSPATU NAHI DUGU, FAMILIA HORREN LANA AITORTZEKO"

gero, gainera, umeak ontzia egiten jartze badituzu, izugarria da beraientzat. Taldetan banatzen genituen, bakoitza arotz batekin, eta zeregin konkretuak zituen talde horietako bakoitzak. Arotz oso onak eduki ditugu, eta oso ondo konektatu dute umeekin.

Ikasleekin kurtsoa amaituta-edo, zer asmo dituzue aurrerantzean?

Hurrengo ikasturtean ere jarraipena eman nahi diogu proiektuari, eta aurten parte hartu duten ikastetxeei emango diegu lehentasuna. Gainera, nahi dugu ikastetxe horietan adin tartea zabaltzea, DBH3 eta 4. mailakoek parte hartuz. Ondoren, Euskal Herri mailara luzatuko dugu deialdia, nahi dutenak etor daitezzen. Azken finean, herriko ikastetxeekin jarraitu nahi dugu lanean, Orioko historia eta ondarea delako, eta hori gazteenei transmititu nahi diegulako.

Horretaz gain, Mutiozabal eguna ere ospatu nahi dugu, urria inguruan, balioan jartzeko Mutiozabal familiak egindako lan guztia. Asteburu bateko festa antolatu nahi dugu, eta ondo ateratzen bada, aurrerantzean ere egitea. Lan asko eskatuko digu, baina hori da gure apustua. ■■■

PUBLIZITATEA



Portu
Erretzea - Jabetzea

Kazolirik, baserriko oilaskoa, parrillako errekiak, eguneko menua...

Santio Erreka auzoa, z/g - AIA
943-89 44 34



SU KIA
TABERNA · JATETxea

Eguneko menua
Asteburuetakoa
Oilaskoak eramateko
Ogitartekoak
Plater konbinatuak
Terraza ederra
(alboan umeentzako parkea)

Abaromendi 38, behea 1
ORIO · 943-89 21 29




Sagasti
LEIHOAK

Tel.: 943-13 00 77 - Fax 943-53 71 50
sagasti@sagastileihoak.com
Eusko Gudari, 7
20810 Orio

Roberto Sagasti

Kalitazteko materialak
PVC eta aluminioa · Isolamendu termiko eta akustikoa
Salmenta osteko zerbitzua

www.sagastileihoak.com



Zaragueta IPI
HERRI ESKOLA 2-16
Orio

943 89 92 43 / kaixo@zaragueta.eus
www.zaragueta.eus



URANGA
burdindegia

Opari, menaje eta erremintak

Eusko Gudari, 5 · ORIO · 943-83 12 36



XS arkitektura

www.xsarkitektura.com

herrikobarra, 11 behea · ZARAUTZ · 943-13 43 58

eraiakuntza zerbitzuak
eraikinen mantenua
errehabilitazioak
proiektuak
txostenak
ITE-ak
obrak



ZINKU
ERAIKUNTZAK

- Igeltserotza orokorra
- Etxebizitzaren erreformak
- Teilatuak
- Sukalde, komunak, etb.
- Eraisketak

deitu eta eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

Ander Zinkunegi
667 74 02 79



ZARAUZKO BEILATOKI-ERRAUSKAILUAK BAKARRIK ESKAINTZEN DIZU ZERBITZU INTEGRALA

- Beilatokia eta errausketa-labea instalazio berean
- Areto intimo eta argitsuak
- Eraikin berria, modernoa eta eraginkorra
- Profesional berberak

Betiko zerbitzu bikaina espazio berri batean.

943 894 937 / 943 422 129 (24h) | memora.es
Abendaño Kalea, 2 - Zarautz

m | Zarautz Hileta Zerbitzuak
memora

Sara Casas: "Beti belarriak prest izaten saiatzen naiz"

TESTUA: AMAIA OLAZABAL-ORIOKO AEK

Noiz etorri zinen Oriora? Zerk ekarri zintuen hona?

2018an etorri nintzen; bost urte izango dira abuztu. Zaragozako naiz ni, baina bikotea hemengoa delako etorri nintzen Oriora. Gainera, lana aurkitzeko errazagoa nuen nik berak baino.

Noiz hasi zinen euskara ikasten? Zergatik?

Urte hartan, 2018an. Oriora etorri aurretik liburu pare batekin saiatu nintzen euskara ikasten, baina ezin izan nuen. Uste dut hizkuntzak ikastea ondo dagoela beti, aukera asko ekartzen ditu eta.

Horrez gain, niretzat euskara bide bat da zuen kultura eta bizimodua ezagutzeko.

Uste duzu zure inguruak baloratzen duela euskara ikasteko egiten duzun ahalegina?

Hori espero dut. Beti belarriak prest izaten saiatu naiz, baina batzuetan ez da erraza Orioko euskara ulertzea. Askotan esaten duzuenak ez du ikasi dudaren antzik, eta batuan nola izango litzatekeen pentsatu behar dut.



Esate baterako, aurreko irailtik, *guai*ziak da nire hitz gogokoena.

Lanean euskara erabiltzen duzu?

Saiatzen naiz. Oraindik nire ahozko euskara oinarrikoa dela uste dut; hala ere, normalean elkar ulertzen dugu.

Euskara ikasten hasi zinenetik izan duzun sorpresa on bat?

Ez dakit sorpresa ona den, baina anekdota bat kontatuko dizuet: iaz Ponferradan nengoela familia euskaldun bat topatu nuen toki estu batean, eta haiek pasatzeko zain gelditu nintzen. Amak

aurrera egiteko esan zion umeari eta, hori entzutean, nik ere zerbait esan nion euskaraz. Umea harrituta gelditu zen eta, egia esan, ni ere bai neure burua euskaraz entzuteagatik.

Bost urte daramatzazu hemen eta dagoeneko euskaraz hitz egiteko gai zara. Zaila izan al da? Zer gomendatuko zenioke euskaraz ikasten hastera doan bati?

Egia aitortuko dut: zaila da. Ez daukalako latinetik datozen beste hizkuntzen antzik, eta hori da nik ezagutzen dudana.

Niretzat zailena da entzuten dudana buruan prozesatzea eta erantzuteko hitzak aurkitzea.

Euskara, edo beste edozein hizkuntza ikasteko, lasaitasuna behar da. Maratoi bat bezalakoa da.

Hitzak ezagutzen hasi ahala, logika gehiago aurkitzen diozu guztiari. Baina ikasteko, komeni da egunero, poliki-poliki, euskara erabiltzea. Gainera, esan behar da normalean jendeak laguntzen dizula eta gustura hartzen duela gu euskaraz saiatzea. ■

☎ 666 047 535

📷 @OSAI_ARKITEKTURA

✉ OSASIAIN@GMAIL.COM

📍 ALMIRANTE OA KALEA 1, 1º
20810 ORIO



ARKITEKTURA - ERREFORMAK - BARNE DISEINUA

SUKALDE ETA KOMUN PROIEKTUAK

DISEINU ETA AURREKONTU PERTSONALIZATUAK

ALTZARI EXPOSIZIOA



SAREGILE BERRIEN AMARAUNA

Julen Portillo eta Nerea Rodriguez
EDUKI SORTZAILEAK

Gizartea eraldatzen ari den honetan, ogibide batzuek indarra galdu dute, baina berriak ere sortu dira. Azken hamarkadako saregile berriak bilakatu dira eduki sortzaileak. Julen Portillo eta Nerea Rodriguez zarauztarrak dira horietako bi: euskal TikTokerra da lehena; komunikazio politikoan aditua bigarrena.

Testua: **Andrea Zipitria**. Argazkiak: **Urtzi Oteiza**.



Zarauztarrak dira biak ala biak, eta badute beste zerbait ere komunean: eduki sortzaileak dira. Julen Portillo (1994) euskal tiktokerra da, eta Nerea Rodríguez (1978) komunikazio politikoan aditua. Rodríguezek hainbat entitaterean sare sozialak kudeatzen ditu gaur egun, hori du momentu honetan ogibide. Portillo, berriz, denbora librean ibiltzen da TikTokerako edukiak sortzen; diru sarrerak lortzen dituen arren, ezin du horretaz bizi.

Zer esan nahi du sare sozialetako eduki sortzailea izateak? Nolako da zuen eguneroko bizimodua?

J.P.: Ez dakit nondik hasi definitzen. Oso zaila egiten zait. Azkenean, noiztik aurrera zara eduki sortzailea? Edukia sareetara igotzen duen pertsona bezala definitzen dut nik nire burua; hau da, edukiak igotzen

dituen beste edozein bezala. Nire egunerokotasuna zera da: lanera joan, zortzi ordu bete eta denbora librean bideoak igo. Eta noski, disfrutatu.

N.R.: Nire kasua ezberdina da. Julenek bere sare sozialetan partekatzen ditu egiten dituen edukiak, baina nik beste pertsona batzuentzat egiten ditut edukiak. Eduki horiek askoz ere planifikatuagoak direla esango nuke, eta baliabideak ere, agian, ezberdinak dira. Nik eduki sortzailea komunikatzeko beste bide bat bezala definituko nuke; eduki sortzailea da sareetan edukiak sortzen dituen.

Bi ikuspuntu ezberdin azaldu dituzue. Zuen iritziz zein da zuen jardunaren alderik onena eta txarrena?

J.P.: Txarrena, jendeak zutaz barre egitea. Azken aldian, hori pertsonalki asko ari zait eragiten. Baina alde onak ere baditu. Positiboena herritarrei nire edukiak gustatzea dela esango nuke.

N.R.: Egunero abentura berri bat dagoela martxan da niretzat positiboena edo behintzat gehien gustatzen zaidana. Leku ezberdin asko ezagutzeko aukera ematen du ogibide honek, eta esango nuke alderdi emozionala ere baduela, ikuspegi positibotik begiratuta. Okerrena, berriz, eduki bat egin eta ez funtzionatzea da nire iritziz. Adibidez, igotako edukia jende gutxik ikusten duen kasua aipatuko nuke. Hori bai, alde positiboak negatiboak baino gehiago dira nire ustez.

Nolabait esateko, besteen menpe ere bazaude-te. Batzuk saiatzen dira, baina arrakasta ez dute guztiak lortzen: zein da arrakasta lortzeko sekretua?

N.R.: Niri interesatzen zait eduki batek zer-nolako erantzuna edota babes duen jakitea, hori izaten baita askotan lana ondo egin duzun seinalea. Dena den, ez da beti horrela izaten. Garrantsiarena beti koherentzia mantentzea da, lan fina eta ona egitea. Izan ere, arrakasta ez dago hain nire esku. Profesionala ere izan behar duzu, eta ezinezkoa da, esaterako, bideo bat gaueko ordu txikitan igotzea. Ziur nago zuk ere kontuan hartzen duzun zerbait dela hori, Julen. Horrenbestez, egindako lan batekin gustura geratzea da arrakasta.

J.P.: Nereak esandakoa azpimarratu nahiko nuke. Askotan, sareetara igo aurretik, eduki batek arrakasta izango duela uste duzu, baina ez da hala izaten beti. Ni euskarazko edukia egiteko helburuarekin hasi nintzen egiteko honetan. Egun batean 50.000 ikustaldi izaten ditu bideo batek, eta hurrengoan, berriz, mila ikustaldi beste batek.

Edukiak arrakastarik izaten ez dutenean, eragiten al du zuengan?

N.R.: Harrotasun puntu horretatik, gure bihotzean eragiten duela esango nuke. Kontua da *influencer* handien kasuan askoz ere handiagoa dela eragina. Guk ez ditugu *influencer* horiek dituzten bezalako helburuak.

J.P.: Halako helburuak noski ez ditugula, baina arrakasta ezak badu eragina nigan. Orain ez hainbeste, baina izan ditut oso onak izan ez diren hilabete batzuk. Guztia begiratzen ibiltzen nintzen: jarraitzaileak galtzen nituen ala ez... Nire osasun mentalari kalte egiten ari nintzela ohartu nintzen momentu bat iritsi zen, eta hori makro *influencer* horiekin alderatuta, ez naizela inor. Ez dut imajinatu ere egin nahi nola eragingo dien arrakastak haiei.

N.R.: Makro *influencer*-ak metriken oso esklabo dira.

***Influencer*-en gaia jarri duzue mahai gainean. Gaur egun, gazte askok esaten dute handitan *influencer* izan nahi dutela. Askok, gainera, halako pertsoniak dituzte idolotzat. Erraza al da sare sozialetako jardun horretatik bizitzea?**

N.R.: Saiatuta ez duzu lortuko inoiz *influencer*-a izatea; berezko zerbait eduki behar duzu. Gaur egun, hainbeste profilekin zaila da zurea zerbaitetik bereiztea. Zerbait ezberdina eskaini behar duzu edo bideo batek oso ongi funtzionatu behar du makro *influencer* bilakatzeko. Gainera, marka asko mikro *influencer*-ekin hasi dira lanean. Gazteei esango nieke ez pentsatzeko izugarriko *influencer*-a izatearekin; izan zaitezte zuen kaleko edota auzoko *influencer*-ak.

J.P.: Bideo bat birala egitea ez da hain zaila gaur egun. TikTok ikustaldi asko izaten dituzte bideoek, baina behin ikustaldi asko lortuta, zaila da horretan mantentzea. Ez da hain zaila lehenengo bideoan originala izatea, baina asko egin behar baldin badituzu... Hor dago koska.



"Instagram da nire sare sozialik gustukoena; baina Youtube kontsumitzen dut gehien"

"Youtuben kanal garrantzitsu bat nuen, baina bideo guztiak borratu ditut"

"Gazteengan eragin handia dute sare sozialek, eta hori eskoletatik ondo landu beharreko zerbait da."

Nerea Rodriguez

N.R.: Horri jarraiki, gaur egun dena ikusita dagoela gehituko nuke. Askotan, eduki txar asko saltzen dituzte, eta ildo horretatik ezin da tira.

Noiz ireki zenuen TikTokeko kontua, Julen?

J.P.: Pandemia hasi berria zela sortu nuen kontua, isilpean gainera. Hasieran lotsa ematen zidan TikToka nuela esateak, baina gero ikusi nuen herritarrei asko gustatzen zitzairela, eta lasai hasi nintzen esaten. Gainera, lehen hala uste nuen eta orain ere bai, iruditzen zait sare sozial guztietan onena dela TikTok. Gaur egun, 9.000 jarraitzaile pasatxo ditut, eta edukiak euskaraz egiteko, ez dago batere gaizki.

Eduki guztiak euskaraz egiten dituzu. Zergatik?

J.P.: Hautu politikoa da, nire hizkuntza delako euskara. Askotan ematen du euskaraz ezin dela regetoia egin, ezin dela umorea egin... Baina euskal kultura ez da trikitia, bertsoak eta esku pilota bakarrik. Falta da euskarazko prentsa arrosa, adibidez. Falta da dena gure hizkuntzan egitea. Zergatik euskaraz? Galdera horri beste galdera batekin erantzungo nioke: zergatik ez?

Inoiz sentitu al duzu beste hizkuntza batean aritzeko beharrik?

J.P.: Ez. Orain dela gutxi ETB2ko *Akelarre* saiotik deitu zidaten, bideo laburpen bat egiteko esanez. Oso ondo iruditu zitzaidan proposamena, baina baldintza bakarra jarri nien: euskaraz egingo nuela. Zertarako egingo dut gaztelaniaz? Nire audientzia euskalduna da, eta sortzen dudana edukia haientzako da.

Sare sozial asko daude, baina zeinetan sentitzen zarete erosoen?

J.P.: Nik esan dut... [barrez].

N.R.: Nire sare sozialik gustukoena Instagram dela esango nuke. Hala ere, Youtubek txoko handi bat du nire bihotzean. Izan ere, bere garaian, Youtuben banuen kontu bat, jarraitzaile askorekin; oso ondo funtzionatzen zuen. Orain, bideo guztiak borratu egin ditut, txorakeria dezente egiten nituen-eta garai hartan. Gaur egun ere, Youtube Instagram baino gehiago erabiltzen dut. Dena den, lanean gehien erabiltzen dudana sare soziala da Instagram.

Zergatik utzi duzu alde batera Youtubeko kanala?

N.R.: Momentu batean egiten dituzu gauzak gustura, baina urte batzuk pasatu ondoren ez zara hainbeste identifikatzen pertsona horrekin. Izan ere, denok joaten gara garatzen eta aldatzen. Youtubeko kanalean banituen, esaterako, ile beltzarekin agertzen nintzen bideo batzuk, eta urte asko dira jada ez dudala nire burua ile beltzarekin ondo ikusten. Orduan askoz ere gazteagoa nintzen, eta ez nuen umerik; gaur egun beste pertsona bat naiz. Horregatik ezabatu nuen kanala. Garai berriak dira, eta edukia ere aldatu egin behar da. Lehen esan dudan bezala, orain Instagram erabiltzen dut batik bat, eta gehienbat lanerako, gainera; nireak ez diren beste profil batzuk kudeatzen ditut. Instagrameko kontu pertsonalari dagokionez, orain dela urte batzuk Telecincon aritu nintzen lanean, eta ordu-tik jarraitzaile asko ditut, baina argazki bakarra daukat igota. Momentuz kontua mantendu egin nahi dut. Agian, egunen batean hasiko naiz edukiak-eta igotzen.

Nerea, komunikazio politikoan aditua zaren aldetik, gomendiorik emango al zenioke Juleni?

N.R.: Bere marka euskara bada, horri eusteko esango nioke. Gaur egun oso zaila da besteen-gandik desberdintzea, eta marketin eta komunikazio arloetan aritzen garenok garrantzi handia ematen diogu markari.

Hizkuntza aipatu duzunez, zu, Nerea, gehiago aritu zara erdal munduarekin harremanetan...

N.R.: Bai, hala da. Nire ama hizkuntza gaztelania da, nahiz eta euskara ondo menperatu eta euskara erabili kalean zein lanean. Zerbait naturala izan behar duenez, sare sozialetan gaztelera hitz egitea ateratzen zait niri. Azken finean, bizitza errealean duzun egunerokoaren isla izan behar du sare sozialetan jartzen duzunak, ezin duzu artifiziala izan sareetan.

J.P.: Ñabardura bat egin nahiko nuke horren inguruan. Herritar askok pentsatzen dute nire ama hizkuntza euskara izan dela betidanik, baina ez da hala. Nire familian bi kide soilik gara euskaldunak: anaia eta biok. Gurasoak extremadurarrak dira, eta nik etxean gaztelera



"Zertarako egingo dut gaztelaniaz? Nire audientzia euskalduna da, eta haintzat sortzen dut edukia"

"Duela hilabete batzuk psikologoan hasi naiz; sare sozialetako gauzak niregan eragina zutela ikusita"

"TikToketik diru-sarrerak baditut, baina gaur egun zaila da horretaz bizitzea"

Julen Portillo



hitz egiten dut, baina erosoago sentitzen naiz euskarazko edukia sortzen.

Irudiaren gaia aipatu duzue. Sare sozialetan ikusten den guztia ez dela errealia esan ohi da. Zer iritzi duzue horri buruz?

N.R.: Bi joera daude. *Influencer*-ek igotzen dituzten irudiak marketinari oso lotuta egoten dira, eta zentzu horretan, ez dute hainbesteko askatasunik izaten beraiek nahi dutena egiteko. Nik ez ditut inoiz marka handiak atzetik izan, eta halakoetan, naturalago izaten dira kontuak. Ez zara iragarki bat, pertsona bat baizik.

J.P.: Sare sozialetako Julen ez da pertsonaia bat, baina kalean baino gehiago esajeratzen dut. Askok uste dute txisteak egiten pasatzen dudala eguna, baina ez da horrela. Ni, berez, pertsona lasaia eta lotsatia naiz. Herritar askok ez dakite bizitza errealia eta sare sozialetakoa desberdintzen.

Markaren batek jo al du zuengana publizitatea egiteko eskatuz?

N.R.: Bai, baina markak baino gehiago agentziak dira guztiaren atzean daudenak. Agentziek nolabait marka ezberdinekin kolaboratzen dute, eta *influencer* jakin batzuekin hitzartuta edukitzen dute kontratua. Azkenean, negozioa da hori ere. Garai batean, agentzia batekin egin nuen lan, baina oso gutxi irau nuen; hilabete bat, gutxi gorabehera. Ez dut horretarako balio.

J.P.: Markekin ez dut lan egin, baina izan ditut diru sarrerak, gehienbat, Eusko Jaurlaritzaren edota Gipuzkoako Foru Aldundiaren partetik. Izan ere, euskara sustatzeko hainbat egitasmok egiten dituzte horiek. Duela bi urte, nire produkzio bat alde batera utzi behar izan nuen, sareetan soilik jarduteko. Urte eta erdiz eutsi nion jardun hari, baina ikusi nuen ezin nuela bizitza harekin jarraitu. Oraindik ere izaten ditut diru sarrerak, baina oso ezberdina da; izan ere, gaztelaniaz aritzen diren *nfluencer*-en bueltan askoz ere diru gehiago mugitzen da. Hala ere, euskararen alde egiten den apustua gero eta handiagoa da, eta hori eskertzekoa da.

Diru sarrerak tarteko, presioa sentitu duzue noizbait?

N.R.: Orokorrean, ez. Baina lehen aipatu dudan agentzia harekin lanean hasi nintzenean, sen-

titu nuen nolabaiteko presioa. Haiek esaten zidaten zer egin behar nuen, eta hori ez zitzaidalako gustatzen hartu nuen haiekin lanean ez jarraitzeko erabakia.

J.P.: Nik ere ezetz esango nuke.

Sare sozialetan pertsonari ala haren itxurari ematen zaio garrantzi handiagoa?

N.R.: Pertsona guztiok gauza ezberdinak kontsumitzen ditugu sare sozialetan. Horrenbestez, pertsonaren eta jarraitzen dituzun profilen arabera, garrantzia ematen diozu gauza bati ala besteari. Lanean kudeatzen ditudan profiletan sortzen dudana edukia kontsumitzen duten pertsonak mezuari ematen diote garrantzia, adibidez. Gazteagoa nintzenean, aldiz, garrantzi handiagoa ematen nion irudiari. Gaur egun, denetarik aurkitu dezakezu sare sozialetan.

J.P.: Nik ez dakit galdera horri erantzuten, handi geratzen zait gaia.

Irudiak, orduan, badu gazteengan eragina?

N.R.: Zalantzarik gabe. Gainera, hori ez dut nik bakarrik esaten. Gaiak ikerketa asko egin dira, eta adituek esaten dute sare sozialetan ikusten denak eragin zuzena duela gazteengan. Leku askotatik etor daiteke influentzia hori, gainera. Nik neuk ere erabili izan ditut filtro surrealistikak batzuetan; halako gauzak eginda, gazte askok pentsa dezakete hori dela irudi errealia, baina ez da hala. Bestalde, sare sozialetan ciberebullyinga egiteko aukera dago. Eskoletan horri buruzko pedagogia lan handia egin behar da, eta gazteei erakutsi behar zaie egoera horiek nola kudeatu. Matematikako eskolen pare jarri beharreko gauza da hori. Gazteek tresnak behar dituzte, eta guk ere bai, baina urteekin gauzak ezberdintzeko buru gehiago izaten da normalean. Gaur egun ez du balio pertsona bat eskolara joan eta hitzaldi bat eskaintzeak; hori ez da nahikoa. Gazteengan eragin handia dute sare sozialek, eta hori eskoletan ondo landu beharreko zerbait da.

Sare sozialetan aldaketarik ikusi al duzue azken urteetan?

N.R.: Bai, eta ez nik bakarrik, gizarte guztiak baizik. Gauzak nahiko bare zeudela pentsatzen genuenean, TikTok azaldu zen; Facebook, berriaz, itzalean geratu da. TikTok iraultzailea izan da; bai musikaren munduan, bai marketin ar-



loan... Lehen asko saltzen ziren eduki luzeak, eta gaur egun, gauza bat ikusten ez ditugu hogeituro segundoko ere irauten. Facebook sortu zenean, lagun artean barre egiteko eta komunikatzeko erabiltzen zen, baina gaur egun, sare sozialak komunikatzeko tresna garrantzitsu bilakatu dira. Edonork ditu sare sozialak, herrialde desberdinetako presidentek guztiak, adibidez; denek komunikatzeko erabiltzen dituzte beren profilak.

J.P.: Bai, aldaketa handia izan da. Gaur egun bizi dugun egoeran hogeituro segundoko ere ez ditugu jasaten bideo bati begira. Pentsa, Youtubeko iragarki bat bera ere ez dugu ikusten. Oso zaila da guztia; izan ere, bi edo hiru segundoko dituzu ikus-entzunleak begietatik sartzeko.

Hori kontuan izanik, nola moldatzen zara jarraitzaileen arreta lortzeko, Julien?

J.P.: Uste dut euskarazko edukiak egiten dituzalako lortzen dudala arreta piztea. Herriarrak hizkuntzarekin identifikatuta sentitzen dira. Gainerakoan, ez dut ezer ezberdina egiten. Horrekin jarraituta, esango nuke gaur egun ez dela hain zaila TikTok jarraitzaileak

lortzea. Hiru edo lau bideo biral egiten badituzu, nahikoa jarraitzaile eskuratzen dituzu.

Edozerk balio al du jarraitzaileak lortzeko?

J.P.: Edozerk. Askoren helburua ikustaldiak lortzea da, eta horretarako edozer egiten dute. Edukiak ikusita, edozer gauza pentsa dezakezu haiei buruz, baina beraiek gustura egoten dira bideoa ikusi izanagatik bakarrik.

N.R.: Edozerk balio du, bai. Gaur egun denetarik egiten du jendeak. Ez dakit ona ala txarra den, baina gure arreta bereganatzea lortzen dute. Neuk ere askotan ikusi izan ditut halako edukiak, ez dut gezurrik esango; are gehiago, argazki bat ateratzerakoan bizitza galdu dute sare sozialetako erabiltzaile batzuek.

J.P.: Nereak aipatutakoari gehituko nioke sare sozialek onartu egiten dutela horrelako edukiak zabaltzea. Hori agian, mugatu egin beharko litzateke, zer dagoen ondo eta zer gaizki zehaztu.

N.R.: Instagramen nahiko zorrotz dabilta mugekin, ezin duzu ezer erakutsi.

J.P.: Hala da. Emakume batek titiburuaren zati txiki bat erakustea ez dute onartzen Instagramen, baina gero jendeak ikaragarritzko gauzak egiten ditu eta horiek onartu egiten ditu.

N.R.: Horretan bat nator zurekin, Julien. Guztiok dakigu titiburuaren gaiak zer-nolako iskanbila sortu duen. Titiburuak erakusten uzteko mugimendu bat ere izan da tartean, baina ez dute ezer lortu.

Teknologiak bere alde onak baditu, baina arriskuak ere bai. Horri lotuta, Nerea, bizi izan zenuen esperientzia nahiko gogor bat. Jendea ezagutzeko aplikazio batean identitatea ordezkatu zizuten...

N.R.: Bai. Pertsona bat nirekin jarri zen harremanetan, eta esan zidan Tinderren ikusi ninduela. Nik ez dut inoiz Tinder erabili, baina norbaitek Instagramen nituen argazkiak hartu eta profil bat sortu zuen Tinderren. Jada ez naiz oroitzen profil faltsu hartan jarri zidaten izenaz, baina A Coruñakoa nintzela zioen eta nituenak baino urte gutxiago nituela ere bai. Hori ikusita, salaketa jarri nuen, baina gaur arte ez dut ezer jakin gaiaz. Ez didate ez deitu, ez gaia aztertu dutenik esan, ez ezer. Horrekin esan nahi dudana da sare sozialetan jartzen dugunarekin ere kontuz ibili behar dugula; izan ere,



gero sareetan geratzen dira argazki horiek, eta auskalo nora iristen diren.

J.P.: Niri ez zait halako ezer gertatu, eta espero dut etorkizunean ere halakorik ez pasatzea. Uste dut halako gauzak erraztasun handiagorekin egiten zaizkiela emakumeei. Emakume baten irudiak gizon batenak baino gehiago saltzen du, zoritxarrez.

Sare sozialetan sexuen arteko arrakala hori badagoela pentsatzen al duzue?

N.R.: Bai. Sare sozial neutralez jardun gara, baina badira hain argiak ez diren beste batzuk.

J.P.: Bai, badago, eta ez nuke jakingo arrakala hori handitu edo txikitu egin den esaten. Only-Fans sare soziala nahiko zeresan ari da ematen zentzu horretan, adibidez. Ikaragarria da jendeak dirua irabazteko zer gauza egiten dituen... Sare horietan dauden pertsona guztiak benetan nahi dutelako al daude? Hori da nire galdera.

Halako sare sozial berriek beldurra ematen al dizuete?

N.R.: Beldurra ez da hitza, baina erregulatu eta arautu egin behar dira horrelako gauzak. Gazteak daude tartean, eta pornografiaz hitz egiten da askotan. Gaur egun kontsumitzen den pornografia min handia ari da egiten gazteengan.

J.P.: Sare sozial guztietan arautu behar dira gauzak, ez batzuetan bakarrik.

Emozionalki sortzen al dute eraginik sare sozialek?

N.R.: Bai, onerako eta txarrerako.

J.P.: Bai, dudarik gabe. Duela hilabete batzuk ikusi nuen sare sozialetako gauzek eragina zutela nigan, eta psikologoarengana joaten hasi naiz. ■



Ikusi eskusiban Julen Portillo eta Nerea Rodriguezeri egindako elkarrizketa QR kodea eskaneatuta.



1960ko urteetako gazteriaren askatasun grina



IÑAKI ITURAIN iturain@gmail.com

ARGAZKIAK: XANTI GURRUTXAGA ETA IÑAKI

ARRILLAGA

Maiatzean 55 urte bete dira Parisko 68ko maiatza izendatu zuten mugimendu iraultzailetik. 1968ko maiatzean Parisko unibertsitateko ikasleak kalera atera ziren protestan, mundua aldatzeko gogoz. Bazituzten arrazoiak horretarako, bazituztenez! Nazioz nazio, herriz herri, ia mundu guztira zabaldu zen mugimendua, baita Euskal Herrira ere, Oriora ere bai. *Egin maitasuna, ez gerra; debekatuta debekatzea; agintea hil da...* Horrelako esaldiak gelditzen dira ordukoaz, eta orduan gazte ziren askoren iragan mina.

Parisko kaleetan proletarioek, ikasleekin bat eginda, autoritarismoa, inperialismoa, kapitalismoa, klasismoa, matxismoa, kontsumismoa, militarismoa... zituzten etsai. Bazuten, bai, zeren kontra borroka egin. Marx eta Che Guevararen irudiekin, eta txima luzearen eta minigonaren estetikarekin, mundua irauli nahi izan zuten. Orduan sortu ziren moral tradizionalatik bestela bizitzeko komunitateak: komunak, hippyak... Borroka haietatik datorkigu moral sexualaren aldaketa, generoen arteko harreman irekiagoak, feminismoaren suspertzea eta gerraren kontrako jarrera. Mundu berri bat ari zen jaiotzen.

Mendebaldeko gizarteari aldaketa sakonak eragin zizkion bizitzako alor askotan: lana, janzkera, musika, harremanak, sexua, pentsamendua, soldaduska... Askatasun sozial eta pertsonalak aldarrikatu eta, kasu batzuetan, ekarri zituen eguneroko bizimoduan.

Euskal Herriko iraultza giroa

Hego Euskal Herrian, frankismo bete-betean segitzen genuen, artean, Francoren diktadura zapaltzailearen azpian. Estatuaren indar errepresiboez gain, Elizaren goi mailako hierarkiak ere errepresio ideologiko handia eragiten zuen gizartean: jendearen ohituretan, bizimoduan eta pentsamenduan; muga estuak ezartzen zizkien orduko gizon-emakumeei. Dena zen debeku eta bekatu. Kartzela eta infernua presente zeuden, mugitzen hasten zen edozeinentzat.

Orion ere elizaren presentzia eta eragina itogarria zen herritarren bizimoduan. Garai hartan jendea elizari lotuta zegoen guztiz. Elizako

ORION ERE ELIZAREN PRESENTZIA ETA ERAGINA ITOGARRIA ZEN HERRITARREN BIZIMODUAN

konfesionarioetan jendea zain, apaizari bekatuak aitortzeko. Meza latinez ematen zuten, apaizak herriari bizkar emanez; eta pulpitutik gogorarazten zizkien herritarrei infernuko betiereko garrak.

1964an Francoren erregimenak, gerra bukatu zeneko 25. urteurrena zelako aitzakiarekin, sasi galdeketa bat antolatu zuen, *25 años de paz (25 bake urte)* izenburupean. Herriak umorea erakutsi zuen, kaleko pintada honetan: *25 años pa ke hurte* (erdaraz irakurrita). Hura ez baitzen ez bakea eta ez demokrazia. Ez zegoen partiduko politiko legalik, ez sindikaturik, ez hauteskunderik... Euskarak ez zuen lekurik administrazioan, ez unibertsitatean, ez eskolan, ez hedabideetan... Ez zegoen prentsa librerik. Zentsura zegoen ezarrita prentsan, literaturan eta jardun artistiko guztietan.

Bigarren Mundu Gerra bukatu berritan jaiotako herritarrak izan ziren, 60ko urteetan gazte zirenak, mugimenduaren oinarria. Galderak egiten hasi ziren: gauzen zergatia, ordura arteko erabateko menpekotasunaren aurrean zalantzan jarri zuten autoritatea, estatutik eta elizatik zetorkiena. Ordura arteko euskaldun-fededun binomioa apurtzen hasi zen. Frankismoaren gau luzearen amaiera amestu zuten, baina ez zuten egon nahi egunsentia

etorri zain, ekarri egin nahi zuten, eta bide horretan abiatu eta borrokatu ziren.

Gazte gera, gazte, ta ez gaude konforme kantatzen zuen Lourdes Iriondok. Zerbaiten kontra ari ziren euskal gazteak, bai; baina, batez ere, zerbaiten alde: askatasunaren alde eta, euskararen kontrako debekuen gainetik, euskal kultura eta euskara biziberritzearen alde.

Horretarako ezinbestekoak ziren baliabideak eratzeari ekin zioten: Ikastolak eta gau-

eskolak sortu ziren, herriz herri, euskararen agonia gelditu eta berpizkundea abiatzeko.

Euskaltzaindiak euskara batuaren oinarriak adostu eta erabaki zituen, 1968an, Arantzazuko batzarrean. Ez Dok Amairu kultur taldea sortu zen, eta guztiz itzalita zegoen kultur giroa astindu zuen, tradizioa eta berrikuntzak batuz. Talde hartan parte hartze zuzena izan zuten Jorge Oteizak eta Benito Lertxundik. Taldeak Oteizari zor dio izena, hark proposatu

baitzior taldeari, ipuin batetik hartuta.

Orion ere haize berriak

Gu gazteok gaur gabiltza mundu galdu honetan, gerra bat barruan degula zer egin jakin gabe, gurasoen mundu aldrebes hau ez degu onartzen, diruaren morroi izaten erakutsi digute; bizimodu lasai batengatik idealak galdu, bizitzaren gauza ederrenak dizkigute zapaldu. Gizonak kartzelan daude beren



Juanjo Lertxundi, Antonio Campos, Gabriel Gurrutxaga eta, behean, Jesus Mari Karrera, seminarista zirela. Apaiztu baino lehen aldatu zuten bidea.



1960ko abuztuan, Orioko 20 bat mutil Orreagara joan ziren akanpatzera, Juan Kruz Juaristi apaiz zarauztar gaztearekin. Seguru asko, Oriotik egindako holako lehen irteera.



Ramon Uranga, Antonio Campos, Jabier Pikero, Jabier Urdangarin, Jose Antonio Atorrasagasti, Antxon Ibargoien, ? eta Juanjo Lertxundi, Orreagara iritsi berri.



Florentino Arrizabalaga, Antxon Ibargoien, Kandido Esoain,?, Jose Manuel Arrillaga eta Juanjo Lertxundi, bazkaltzen.



Jose Luis Segurola eta Jose Antonio Atorrasagasti txistulariak.

herriagatik, maitasun hitzak nahi nituzke esan, baina gaur ezin dut. Hitz horiek kantatzen zituen Lertxundik. 1963an plazaratua zuen Oteizak bere liburu ezagunena: *Quosque Tandem (Noiz arte?)*. Bai Benitoren kantuko hitzak, bai Jorgeren liburukoak, samindura, protesta eta garaiko egoera politiko-sozial itogarriaren kontra altxatzeko aldarrikapen sutsuak ziren.

Elizaren barrutik orduko apaiz gazte asko, aldaketa

giroak kutsatuta-edo, askatasunaren bidean abiatu ziren. Vatikano II.a kontzilioak ekarri zuen meza tokian tokiko hizkuntzan eman ahal izatea, eta apaizak herriari aurrez aurre begiratzea. Sekularizazioa etorri zen, apaiz askok utzi zuten eliza, baita seminarista askok ere, eta gizarteko beste borroka-leku batzuetan abiatu ziren. Haien artean ziren zenbait apaizgai oriotar; haietako batzuen ahaleginak ubera utzi zuen euskal kulturaren berpizkunde bidean.

Anjel Lertxundik, seminararioa laga eta bide sekularra hasita, euskararen alorrean ekarri zuen berrikuntza: Zarauzko ikastolan irakasle, haurrentzako ipuinak idazten... Euskararen egoera tamalgarriaren zuloak betetzeko lanean, momentuak eskatzen zuena eginez.

Galderak eta zalantzak

Mundua pitzatzen hasi zen. Galderak eta zalantzak etorri ziren. Euskal Herriko herri askotan mendizale elkarteak sortu ziren. Mendia zen orduan lekurik libreena, arriskurik gabeko topalekua. Elizako saloian sortu zen Kukuarri

mendizale taldea 1967an. Beste herri askotan bezala, ez ziren mugatu mendi ibilaldiak antolatzerantz: liburutegi klandestino ibiltaria sortu zuten; gai tabu askoren gaineko hitzaldiak eta bilerak antolatu... Bide berriak zabaldu zizkion gazteriarri. 1965ean, Club de Remo Olímpico de Orio sortu berriak arraun modu berria ekarri zuen. 1971n, Ikastola zabaldu berriak bide eman zion hezkuntzan euskarari, eta neska-mutilek elkarrekin ikasteari.

Aldaketa giro horren adibide anekdotiko bat bada garai hartako Orion, politikan sartzeko batere joerarik ez zuen arrantza munduan: herriko baporeak hiru taldetan antolatuta zeuden, itsaso zabaleko lanean elkarri laguntzeko. Izen hauekin: *Gorriak, Tupamaroak eta ETAkoak*.

Giro hartan, 1968 aldean, elizako saloian taberna jarri zuten gazteek. Hura zabalik noiz eduki erabakitzeko, bilera egin zuten bikarioak eta gazteen ordezkariak. Ez ziren ados jarri, eta gazteek protesta egitea erabaki zuten. Ostegun



Frantzisko Iburguren, Iñaki Agote, Juan Kruz Juaristi, Inazio Etxeberria, Jose Antonio San Sebastian, Jose Luis Seguro, Jose Antonio Orbeago eta Joxe Etxeberria.



Orreagakoetan ez bezala, Sanpedroetako argazkian neskak eta mutilak ageri dira, festetan elkarrekin.

Santu egunean, boikota egin zioten: mezaren erdian, aurretik adostuta, erretorea sermoia botatzen hasia zela, Felipe Arostegik ate handia zabaldu, gazte asko altxatu eta kalera atera ziren. Egun hartan eliza utzi zuten askok, handik aurrera batzuek Eliza ere bai.

San Martin ermitako meza

Orduko gazteak ez ziren mugatu protesta egitera, bestelako meza bat ere antolatu eta prestatu zuten, meza bitxia, San Martin ermitan, Jose Etxeberria apaiz gaztearekin. Tartean, hiru apaizgai oriotar. Herriko gazteria han elkartu zen. Ospakizunak eragin handia izan zuen batzuegan; Karmeleri eskandaluzkoa egin zitzaion apaizgaietako batek jaunartzean ostia eskuetan hartzea, orduan tabu zena, eta nola askatasun keinu hark balio izan zion askatasunaz hausnartzeko.

Gabriel Gurrutxaga apaizgaiak gitarra joz kantuan ospatu zuten elizkizuna. Gabrielekek berak euskaratuak zituen Voces Amigas taldearen *Canta con nosotros* abestiaren hitzak. Karmelek, 50 urtetik gora

pasatuta ere, oraindik gogoan du kantua osorik: *Entzun, gazte zeran horrek, ulertzen dezun gazte, eskubete zuk daukazu, sinismen. Egia maite badezu, bihotza badaukazu, berdinak izango gera, gurekin zuk abestu. Haizeak eta itsasoak, lore guztiak abestu, gauz hiltzen den argia, abestu, sendi batuak duen maitasuna eta sua, beharrezko degun askatasuna.*

Belaunaldi hartako gazteek, orduko giro errepresiboan, mundu justuago batekin amestu zuten, askatasunarekin, berdintasunarekin... Gaur egun inozotzat jo daitezkeen ametsak izan zituzten. Kantu horren hitzak berak dira horren froga, baina ametsak amets, urratsak egin zituzten utopia eder baterako bidean. ■■■



Nazioarteko bigarren estropadaren egunean (1969-08-17), Bikamiyotan, atzean TVEren helikopteroa dutela: Maite Bastos, Maite Garcia, Maria Jesus Manzisidor (anaia Agustinekin), Marije Gurrutxaga, Maribi Ibergoin, Aurora Barandiaran eta Ana Insausti.



Gabi Gurrutxagak 1969an Imanol zenarekin ere kantatu zuen.



Gurasoen ubera Zaraguetan

Ekintza eta zerbitzu ugari antolatzen ditu Uberak, Zaraguetako gurasoen elkarteak

- Gurasoen inplikazioak eskola komunitatea aberasten eta sendotzen du

Berez, itsasontzi batek uretan uzten duen arrastoa da ubera. Orion, ordea, *ubera* hitzak badu beste definizio bat ere: gurasoek Zaraguetan uzten duten arrastoa. Ubera izena du Zaraguetako gurasoen elkarteak. Urteak daramatza eskolan parte hartzen eta lanean. Eskola eta hezkuntza ez baitira soilik ikasleak, irakasleak, curriculum eta ikasgelak. Eskolak eta hezkuntzak komunitate bat behar dute, eta gurasoak funtsezkoak dira eskolaren eta hezkuntzaren inguruan komunitate bat sortzeko. "Guraso elkartearen parte hartzea beharrezkoa da", nabarmendu du Ana Romok, Ubera gurasoen elkarteko presidentek.



Gaztain-bilketa.

Ubera gurasoen ordezkarri da eskolaren aurrean. Gurasoen inplikazioa bultzatzen du eskolan eta hezkuntzan.

"Guztion ardura da gure umeen hezkuntza eta sozializazioa, eta guztiok inplikatu behar dugu", Romoren esanetan. Gurasoen inplikazioa da elkartearen erronketako bat. Gurasoak eskolara erakartzea. Eskola ezagutzeko eta eskolan egiten diren ekintzetan parte hartzeko. "Gurasoak eskolara etortzen badira, eskolako parte sentitzen hasten dira, eta gehiago parte hartzen dute. Nolako eskola nahi dugun amesten dugu". Gurasoen "bidelaguna" da, bai Orion urteak daramatzatena, bai iritsi berriena. Zaraguetaren neurria eta bertako giroa abantaila dira horretarako: "Eskola txikia, gertukoa, goxoa eta familia girokoa gara.

Familiok asko ezagutzen dugu elkar, gertutasun handia dago".

Gurasoen parte hartzeak sendotu egiten du komunitatea. Ez hori bakarrik. Gurasoek eskolako ekintzetan parte hartzeak eragina du haurrengan eta eskolari buruz duten ikuspegiaren ere. Uberaren helburuetako bat bada familiek elkar ezagutzea, "komunitate hori sortzea eta sendotzea, gure haurrak goxotasun eta segurtasun horretan hazteko".

Uberak hainbat ekintza



Santomasak.



Ipuin kontalaria.

antolatzen ditu urtean zehar: gaztain jana azaroan, talo eta txistor jana santomasetan —Esperientzia Eskolakoekin—, bizikleta astea, eskulanak, ipuin kontalariak, herrialde ezberdinetako askariak, mendi irteerak... Badira herriari begira egindako ekintzak ere: sanikolasetako haurren herri kirol saioa eta txokolate jana, eta sanpedrotako 3x3 futbola, esaterako. Edota maiatzeko kros txikia. Gabonetako kantujira eta jostailu eta liburu



Baratzea, sanmartinak, bazkariak eta askariak, kros txikia eta eskularen tailerra.

trukea ere bai, herriko beste talde batzuekin. Guraso elkarteak kudeatzen du goizetako ezinbesteko zaintza zerbitzua ere. Gurasoek zuzenean parte hartzen dute eskola kirolaren saioetan. Eta, orain, gurasoek baratze berriaren proiektua abiatu dute.

Zuzendaritzarekin elkarlanean

Zaraguetaren kasuan, *tosta* berean arraun egiten dute eskolako zuzendaritzak eta gurasoek. "Lotura zuzena dugu zuzendaritzarekin", zehaztu du Ana Romok. Gutxienez hilean behin biltzen dira elkarrekin. Praktikan, behar den guztietan. Gurasoek eskolako erabakietan parte hartzen dute —pedagogiari dagozkionetan ere bai—, eta Uberako kideek

eskertzen dute zuzendaritzaren jarrera, esker onez entzuten eta jasotzen baititu gurasoen proposamenak.

Eskola publikoa da Zaragueta, eta eskola publikoak aldarrikatzen ditu Ubera guraso elkarteak. Zerbitzu publikoa eta doakoa eskaintzen duela. "Denona eta denontzat". Urola Kostaldeko Euskal Eskola Publikoaz Harro plataforman parte hartzen du. Ekintzak egiten ari dira elkarrekin, eskola publikoaren ekarpena nabarmentzeko eta, funtsean, erakundeei eskatzeko lehenetsi dezatela eskola publikoa. "Bizirik gaudela aldarrikatu nahi dugu. Harrotasunez esaten dugu publikoaren, eskubide kolektiboaren eta ume guztien aukera berdintasunaren alde

egiten duen komunitatea garena".

Altxorra. Zailtasunak zailtasun, eskola komunitateko ordezkari guztiek, Zaraguetari buruz hitz egiten dutenean, behin eta berriro aipatzen duten hitza da *altxorra*. Baita Uberak ere: "Sekulako aberastasuna dugu eskolan. Jatorri eta kultura aniztasuna. Gurasoen inplikazioa eta interesa. Errespetua. Komunitate bat badago, eta ikusten eta sentitzen dugu eskola bizia dela". Bizia. Ubera baldin badago, itsasontzia aurrera doala esan nahi du. ■





Bizi-bizirik dagoen plaza, Arizterazu

Erromeria zaleen iritziz Arizterazu bezalako plazarik ez da Euskal Herrian. Irtzi berekoak dira trikitilariak ere, askorentzat ohorea baita han saioa eskaintzea. Duela 80 urtetik erromeria zaleen bilgunea izan da, eta mundu mailako pandemiak ere ez zuen Arizterazuko trikiti hotsa isiltzerik lortu. Hemen zergatia.

Testua eta argazkiak: **Aiora Larrañaga Solaberrieta.**

Arizterazuk badu gainontzeko plaza askori falta zaien xarma berezia, une berean iragana eta oraina uztartzen dituelako. Berde-urdin koloreko aterpeak giro bukolikoa ematen dio, eta norbaitek pentsa badezake ere garai hobeak ezagutu dituela, hasiera bateko itxurak garrantzia galtzen du bertako giroan murgildu orduko. Euskal Herrian ez dira plaza asko izango 80 urtetik gorako ibilbidea izan eta oraindik ere bertaratzen direnengan zirrara sortzen dutenak. Erromeria zaleek argi dute: "Arizterazun bezalako erromeriarik ez da inon aurkitzen".



Haurra zenetik bizi izan du erromeria giroa Juan Mari Azkue Aristerrazuko semeak. "Gure etxea eta erromeria eskutik helduta joan dira beti", aitortu du. "Etxe hau Zarauzko Narros Jauregiko jabe berarena da, eta gure familiak errentan izan du aiton-amonon garaitik. Ezkondu zirenean hona etorri ziren bizitzera, eta nire osabak hasi ziren auzoko baserrietako gazteekin batera igandeetan mandio zaharrean erromeriak antolatzen. Orain dela 80 urteko kontuez ari naiz".

Aiako Andatza auzoko elizaren pare-parean dago kokatuta Aristerrazu, eta horregatik, auzotarrentzat bilgune garrantzitsua izan da beti. "Amak kontatzen zuen garai batean auzoko eskola ere etxe honetan egon zela, 1956an eskola-etxea bezala ezagutzen duguna eraiki aurretik. Euskaraz ematen omen zituzten eskolak, Ikastolen antzera. Horrez gain, igande goizetan auzotarrak mezetara etortzen ziren hona, eta mugimendu handia izaten zenez, halabeharrez sortutako taberna izan zen gurea". Izan ere, mezaren eta erromeriaren ondoren mokadutxoak jan nahi izaten zuten bertaratzen zirenek. "Jangelarik ere ez genuen orduan, eta edozein

Haurrak, gazteak eta helduak juntatu ohi dira igande arratsaldeetan Aristerrazun. Aiarrak, oriotarrak eta inguruko beste herrietakoak biltzen dira erromerietan.

txokotan mahaia jarri eta halaxe moldatzen ziren. Gogoan dut ama 06:00etan jaikitzen zela eta eltzekada handi bat babarrun jartzen zuela sutan, eta otordu garaian auzotarrek eta kanpotik etortzen ziren mutil gazteek botatzen zutela eskua sukaldean, zerbitzatzen". Hasieran mandioan egiten zituzten erromeriak, baina zorua osatzen zuten "ohola zaharrak seguruak ez zirela-eta", etxe aurrera pasatu zuten.

Aristerrazuren sona zabalduz joan zen inguruan, eta Azkuek gogoan du bere gazte garaian Oriotik eta gainontzeko herrietatik "jende asko" joaten zela. "Asko eta asko dira hemen elkar ezagututako bikoteak. Eta ezkondu behar zutenean ere, despedida

"Berreskuratu egin dugu Aristerrazura etortzeko ohitura"

ANDER ARRILLAGA ETA ALAITZ ROTETA



Aspalditik etortzen al zarete Aristerrazura?

Alaitz Roteta: Urte batzuk egin ditut etorri gabe, baina umetatik etorri izan naiz gurasoekin igande arratsaldean pasatzera. 14 urterekin edo trikitixa jotzera etortzen hasi nintzen.

Ander Arrillaga: 12-13 urterekin hasi ginen lagun kuadrilla etortzen. Oinez etortzen ginen, bidezidorretatik etorrita 3-4 kilometro besterik ez baitira. Gauean gurasoak etortzen

zitzazkigun bila. Gero, 18 urterekin, Oialumera joaten hasi ginen. Orain, berriz berreskuratu dugu Aristerrazura etortzeko ohitura.

Aristerrazuko erromeria aldatu al da ordutik?

A.A.: Ez dakit zer esan, esango nuke erromeria lehengo bera dela, baina gure ikuspuntua dela aldatu dena.

A.R.: Gaur egun ordutegi desberdina du, baina esentzia lehengo bera dela uste dut nik ere. Haurrak ginenean,

arratsaldean umeen erromeria egiten zen; ikasleek jotzen genuen arratsaldean, eta ni neu hor hasi nintzen jotzen. Horren ondoren, trikitilari helduak igotzen ziren oholtzara, eta beranduago bukatzen zen saioa.

Garai batean bikoteak erromerietan ezagutzen zuten elkar. Sare sozialen garaian, oraindik izaten al da saltsa hori?

A.A.: Jende gazte asko hasi da etortzen berriz ere, eta oraindik ere mantentzen da saltsa hori, ikusten ditugu sortzen diren bikote berriak. Nik uste dut izurriteak on egin diola Aristerrazuri, itxialdi garaian egin ziren erromeria birtualek indar handia hartu zutelako.

A.R.: Aristerrazu entzuna da inguru honetan, baina oraindik ere igandero-igandero erromeria egiten zela ez zekien jende asko zegoen, eta erromeria birtualek ezagutzera eman zuten berriz. Oso pozgarria da, Euskal Herrian ez baitago Aristerrazu bezalako plazarik.

Arteaga: "Lehen beti mutilok dantzarako eskean aritzen ginen"

JUANI ALKAIN ETA JOXEMARI ARTEAGA SENAR-EMAZTE ERROMERIA ZALEAK

Aspalditik etortzen al zarete Aristerrazura?

Juani Alkain: Gazte-gaztetatik, eta hemen ezagutu genuen elkar, duela 45 urte inguru. Ni aiarra naiz, baina Joxe Mari Asteasukoa da.

Joxe Mari Arteaga: Juanik 13-14 urte izango zituen eta nik, berriz, 17 urte, 18 egiteko. Gure Asteasuko baserria Aiatik oso gertu dago; bataren baserritik bestearena ikus zitekeen.

Jende asko biltzen al zen garai hartan Aristerrazun?

J.A.: Askok. Igandeetan Aristerrazura etortzeko ohitura handia zegoen.

J.M.A.: Anekdotak bezala, esan orain jendea beranduxeago etortzen bada ere, lehen saioa hasi baino lehenago etortzen ginela eta kotxeak plazan uzten genituela aparkatuta; norbere kotxean egoten ginen erromeria hasi zain.

Gazte asko biltzen da orain Aristerrazun. Lehen ere horrela al zen?

J.M.A.: Bai, kuadrilla handiak etortzen ginen. 30-40 mutil inguru juntatzen ginen, neskekin dantzan egiteko prest. Korroan jartzen ginen, ardo botila atera, eta horixe zen gure disfrutea edo gozamina. Ardo edatea ez zen izaten helburua, guztiok elkarrekin jai giroan egon eta dantza egin eta ondo pasatzea baizik.

Orduan animatzen zineten dantzara?

J.M.A.: Lehen mutilek orain baino askoz gehiago dantza



egiten genuen, beti dantzarako eskean aritzen ginen.

J.A.: Lehen neska eta mutil kuadrillak aparte egoten ginen, eta mutilek etorri behar izaten zuten geuregana dantza egiteko eskatzera.

J.M.A.: Teilatu azpiko txokoa jendez beteta egoten zen. Garai hartan soinu-jotzaileei ordaintzeko txapela pasatzen zen, eta ordaindu zuenari pegatina bat jartzen zitzaion, berriz eskean ez joateko. Garai hartan 8.000 pezeta edo irabaziko zituen soinu-jotzaileak, eta hori atera beharra zegoen.

Joxemari, zu asteasuarra izanda, beste herrietako jendea ere etortzen al zen?

J.M.A.: Bai, Zarautz aldetik asko, baita Asteasutik ere. Asteasutik Aristerrazura etorri eta bertan ezagututako bikoteak asko dira. Zaharrak garenok segitzen dugu elkarrekin; berriek, berriz...

Orain indarberrituta ikus daiteke Aristerrazuko plaza. Egon al dira garaik

jende gutxiago hurbiltzen zena?

J.M.A.: Bai, urte batzuetan betikoak juntatzen ginen hemen, baina buelta eman dio.

J.A.: Ordutegiak zeresan handia du. Orain primerako giroa sortzen da, asmatu zuten antolatzaileek. 18:00etatik 21:00etara jende asko juntatzen da, eta pena ematen du 21:00etan saioa amaitzeak.

Emozioa antzematen zaizue Aristerrazuko erromeriaz hitz egiterakoan...

J.M.A.: Bai, hemen egindako parrandak eta pasatako momentu ahaztezinak asko eta asko dira. Ni baino lehenagokoak badira, baina nik ere baditut nire urteak, eta hunkitu egiten naiz garai zaharrak gogoratzean. Orain ere primeran pasatzen dugu. Dantzako kuadrilla badugu, eta igandero hemen biltzen garenok elkar ezagutzen dugu. Asteburuetako familia deitzen diot nik Aristerrazun dugunari.



Maiatzaren 1ean, astelehenarekin, erromeria egin zen Aristerrazun

JUAN MARI AZKUE: "ARISTERRAZUREN ARRAKASTA LORTU DA ERROMERIAZALEEN LANARI ESKER"

AZKUEK USTE DU JENDE GAZTEAREKIN INDARBERRITUTA EKIN DIOLA ETAPA BERRIARI ERROMERIAK

ere gehienek bertan egiten zuten. Lehen ez zen orain bezala egun-pasa edo asteburupasa kanpora joateko ohiturarik. Horren ordez, ostiraletan edo larunbatetan Aristerrazura etortzen ziren soinu-jolearekin, eta buruntzian erretako arkume-jana egiten zuten. Festa ederrak izaten ziren. Bizitza handiko etxea izan da beti".

Hirugarren belaunaldia eta sare sozialak

Azkuek uste du Aristerrazuren arrakasta bere bueltan bildu diren "erromeriazaleen lanari esker" lortu dela. "Nire osaba-izebak eta auzoko gazteak oso erromeriazaleak ziren. Hasieran, horiek antolatzen zuten erromeria, eta ondoren, geuk hartu genuen lekukoa; Andatzako Errromeria Elkartea sortu genuen Martxel Antzaren eta Joxe Alkainen laguntzarekin". 30 urtetik gora aritu dira urritik ekainera igandero erromeriak antolatzen, eta jaialdi garrantzitsuak egitea ere lortu dutela azpimarratu du Aristerrazukoak. "Bidean izan ditugu beheraldiak, baina lortu dugu erromeriari bizirik eustea", esan du hunkituta.

Azken urtean, ordea, Aristerrazuko antolatzaileen hirugarren belaunaldia hartu du testigua, Azkue bera lagun dutela. "Erretiroa hartzeko garaia iritsita, jatetxea itxi beharrean geunden, eta oso kezkatuta nengoen erromeriaren etorkizunarekin, desagertuko zenaren beldur nintzelako. Trikitilariekin harreman handia izan dut beti, eta hainbat gazteri aipatu nien egoera". Aristerrazuko erromeriari bizirik eutsi behar zitzaioela bat etorri ziren guztiak, eta horretarako martxan jarri ziren: "Jende gaztearekin indarberrituta ekin dio etapa berriari erromeriak, ni neu pixka bat harrituta nago. Teknologia berriak ez ditut ezagutzen, baina antza denez, sare sozialen bidez ematen dute Aristerrazuko erromeriaren berri, eta jende asko etortzen hasi da, bai gazteak, bai helduak. Poza ematen dit auzoko gazteak ere bueltatu direlako plazara erromeriazale bezala, oso garrantzitsua baita Andatzako auzotarrek erromeria bere sentitzea". ■■■

LEHIAKETA

NON DAGO KARKARA?

Aurkitu Karkara pertsonaia aldizkarian.

Erantzuna **karkara@karkara.eus** helbidera
ekainaren 23a baino lehen.

Saria: Errigorako kaxa bat.

Karkarako Komunikazio Taldean **bazkide** izatea da baldintza bakarra.



33. orrialdean
zegoen ezkutatuta.
Josune Zabaleta
bazkidea izan da irabazlea.

Aurrera doa Inmobiliaria Orio eraikitzen ari den Kaioako etxebizitzaren promozioa

Orioko kaian eraikitzen ari diren 24 etxebizitzaren lanak "aurreratuta" doazela adierazi dute arduradunek. Horrez gain, Inmobiliaria Oriok abian ditu beste promozio batzuk Zumaian, Zarautzen eta Elgoibarren, eta etorkizunera begira, asmo berriak agertu ditu.

Orioko erdigunean kokatzen den Kaioa promozioko etxebizitzaren lanak "aurreratuta" doazela adierazi du Inmobiliaria Oriok, eta, beraz, 24 etxebizitzak prest izango dira "urte honen amaierarako, edo gehienez, 2024 hasierarako", esan du Inmobiliario Orioko Pedro Aiestaranek. Herriko kaian eraikitzen ari diren 24 etxebizitza horiez gain, promozioak baditu garajeak eta lokalak ere.

Eraikin berriak Leunda familiaren tailerra eta etxea ordezkatzeko ditu, eta, eraikin zaharrak botata, "eraikin berriaren lerrokadurak Kaia kalea zabaltzeko aukera ematen du eta gune hori erabat aldatuko da. Are gehiago Kofradiako eraikin berria egiten denean".

Orioko horrez gain, Inmobiliaria Oriok beste hiru promozio ditu esku artean eskualdean eta inguruetan.

Artadi (Zumaia)

- Artadiko gunean.

- Azken hamar etxebizitzak.
- Uztailean giltzak banatuko dituzte.

Torre Luzea (Zarautz)

- Zarauzko erdigunean.
- 17 etxebizitza, garajeekin.
- Orain gutxi jarri da abian, eta 2024 bukaerarako edo 2025 hasierarako egongo dira bukatuta.

SF54 (Elgoibar)

- Elgoibarko erdigunean, San Frantzisko kalean.
- 18 etxebizitza.
- Abenduan hasi ziren lanak, eta 2024 amaierarako bukatuta egotea aurreikusten dute.

Etxebizitzaren promozio guztiek badituzte amankomuneko berezitasun batzuk, Inmobiliaria Oriok bereziki garrantzia ematen dioten ezaugarriak direnak: efizientzia energetikoa, diruaren aurrezpena, bezeroen konforta eta etxebizitza osasuntsuak. "Promozio guztiek kalifikazio energetiko gorena dute, eta

ahalegin handia egin dugu kalitatezko etxebizitzak izan daitezen, estetika handikoak, eta ingurunearekiko errespetu handikoak", adierazi du Aiestaranek.

Goxotasuna ematen duen zoru erradiatzailea ezartzen dute etxe guztietan eta aerotermiaren laguntzaz ura berotzen da, bai eta bentilazio sistema eraginkorra erabiltzen dute aireztapen ona izateko, besteak beste.

Efizientzia energetikoa da, hain zuzen ere, enpresaren ardatz nagusietako bat, jasangarritasunaren alde egiten baitu zalantzarik gabe bere obra guztietan. Efizientzia energetiko A, gorena, lortutako lehenbiziko eraikinak bailaran, Inmobiliaria Oriok egin zituen eta bide horretan jarraitu du urte hauetan. Horrela, duela urtebete lortu zuen *Pasivhaus* zigilua Zarauzko Nafarroa kaleko bere bulegoetako eraikinean, modalitate horretan Euskadin egiten lehena izanik. Sustatzailearen hitzetan, "gure erronka bezeroengan azterna



positiboa uztea da, bizi-kalitatea irabazi dezaten, eta, aldi berean, etxebizitza eraginkorrekin karbono-aztarna murrizten laguntzen dugu".

Aurrera begira, asmo eta helburu berriak dituztela aurreratu du Inmobiliaria Orioko arduradunak: "Gure bailaran eta inguruko herrietan horrelako etxebizitzak egiten jarraitu nahi dugu, benetan sinesten dugun zerbait delako. Orioko herrirako badugu beste proiektu bat esku artean, adibidez. Hala ere, proiektu gehiagoren bila gabiltza eta herritarrek etxebizitzak, lur eremuak edo ideiak izanez gero, gurekin harremanetan jar daitezela, etxebizitza onak leku onean, osasuntsuak eta pertsonalizatuak egiten jarraitu nahi dugu eta".

Herriarekiko konpromisoa

Inmobiliaria Oriok inguruarekiko eta bezeroarekiko erakusten duen konpromisoa ez da, baina, hor amaitzen. Izan ere, eskualdearekin, bertako udalerrri bakoitzarekin eta horietako herritarrekin ere badute konpromisoa, eta modu desberdinetan erakusten saiatzen dira: "Gure asmoa ez da etxeak egin eta kito, herrian eta herritarrengan eragina nahi dugu izan, etxebizitzak

"BABESLETZAK ERE EGITEN DITUGU, BEREZIKI ARRAUNEAN, ZARAUTZEN ETA ORION"

egiterakoan ingurunea zaintzen dugu adibidez, erdiguneak berreskuratzen saiatzen gara, parkeak eta ekipamenduak eskaintzen ditugu. Babesletzak ere egiten ditugu, bereziki arraunean Zarautzen eta Orion. Herriaren parte izan nahi dugu, enpresa eta pertsona gisa", amaitu du Aiestaranek. ■



Inmobiliaria
ORIO
ERAIKUNTZA
SUSTAPENA
KUDEAKETA

Nafarroa Kalea 13. Zarautz
943-89 44 33

www.inmobiliariaorio.com



Sudokua

Bete hutsuneak, IRATXO hitza osatzen duten hizkiak (I, R, A, T, X eta O) dagokien tokian jarri. Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.

ALdea dago!

Aurki itzazu bi irudien artean dauden aldeak. 10 dira guztira.



ENGainagarriak

10 puska hauetatik 5 irudi nagusitik hartuta daude eta besteak ez. Bereiz itzazu.



Soluzioak ikusteko:
www.plazanbazan.eus/



"Aiako haurrak sanoak zarete"

MAIALEN MANTEROLA IDARRETA

LARDIZABAL ESKOLAKO MUSIKA IRAKASLE AIARRA



Nolatan erabaki zenuen musikako irakaslea izatea? Betidanik izan al zara musikazalea?

Baserrian jaiotakoa naiz. Txikitan behiak geneuzkan, eta nire gurasoek ukuiluan irratia pizten zuten. Beti musika zegoen jarrita. Hazitakoan ukuiluan lanean hasi nintzen, eta nik ere irratia jartzen nuen. 6 urterekin, gurasoek Gabonetan pentsu zaku baten barruan trikitia oparitu zidaten. Gerora nire gurasoek aitortu zidaten hura erosteko bi txahal saldu behar izan zituztela. Musikarekin egin behar nuen zerbait. Trikitia eta panderoa ikasten hasi nintzen, eta Bilbon, musika egiterakoan, piano pixka bat ere bai.

Aiako eskolara etortzearen erabakia zaila izan al zen?

Udan txapelketa bat egiten dugu, eta bertan irakasle askok

parte hartzen dugu. Puntuen arabera doa. Zerrendan Aia agertu zenean, nik lehenengo postuan jarri nuen. Nire sorpresarako, Aian eman zidaten postua, eta poz handia hartu nuen.

Erraza al da herrian bertan bizi eta lan egitea?

Irakasle askok egiten didate galdera hori, eta beti berdin erantzuten dut: nik herriko haurrekin egiten dut lan, eta ez gurasoekin.

Gustura al zaude zure herriko haurrekin lanean? Nolakoak dira?

Hitz batean: sanoak zarete. Bihurriak ere bai, baina haurrak zaretelako.

Nola bururatu zitzaizun eskola aurrean maila bakoitzarekin prestatzen dituzun dantza emanalditxo polit horiek aurkeztea?

Musika astean 45 minutuz bakarrik izaten dugu, eta gauza praktikoak egiten saiatzen naiz. Dantza mota ezberdinak lantzean, musika beste era batera ari gara lantzen. Zuek gauzak ekoizteko gai zaretela ikustea nahi dut.

Musikaz gain zein beste zer zaletasun dituzu?

Palan ibiltzea. Bukatzeko, esan plazera dela Aiako eskolan zuekin lan egitea.

Baita zu irakasle izatea ere. ■■■



**ANDERE ALDALUR
TAYYAB MUHAMMAD**

Lizarrustira irteera

Maiatzaren 4ean eta 5ean LHko 5. eta 6. mailakoak Ataunera joan ginen gaua pasatzera.

Iritsi ginenean Barandiaran museoa gauzak utzi eta autobusez San Martinera joan ginen. Handik bidaia mitologiko bat eginez San Gregorio auzora joan ginen. Bidean, begiraleak On Joxe Migel Barandiaranen ipuin mitologikoak kontatu zizkigun.

Frontoian bazkaldu genuen.

Bazkal ondoren bi taldetan banatu ginen. Batzuk arkeologia lantzeraz, eta besteak museoa bisitatzeraz joan ginen.

Arkeologia tailerrean indusketak egiten ikasi genuen; museoa, berriz, bisita bukatzeko errota martxan ikusi genuen. Izugarria!

Ondoren, Lizarrustiko parketxera joan ginen. Maletak utzi, eta batzuk kanpoan eta beste batzuk parketxeak zituen jolas tokietan ibili ginen afaltzeko ordua iritsi arte. Afal ostean, pijama jantzi eta ohera joan baino lehen disko festa egin genuen.

Biharamunean gosalduta, jantzi eta mendira joan ginen. Lareoko urtegiraino iritsi ginen. Bide batez, kobazulo bat ikustera ere joan ginen. Zoragarria benetan!

Bazkaldu, gauzak jaso, eta jolasean ibili ginen autobusa iritsi bitartean.

Ederki pasa genuen. Berriro joateko irrikitan gaude! ■■■

DOAN EZ DA DEBALDE



ZURE EKARPENA BEHAR DUGU.
EGIN ZAITEZ BAZKIDE.

bazkide@ukt.eus o 943-81 38 41